



ESKOZIA

Oraingoz ez,
baina mila
ate zabalik



- **Filipe Bidart** «Arrisku gutxiago da sasian, errealitatean baino»
- **Kilometroak 2014** Herritarrak ari dira eskolako curriculumak prestatzen Orion
- **Argia Eguna** Europako Herrien mapa eskuratzeko aukera
- **Larrun** Gainpopulazioa, benetako mehatxua?

kontzertua

argiaren alde

Irailak 26

Lasarte-Oria

Manuel Lekuona Kultur Etxea · 22:00

MIKEL URDANGARIN
ANARI
PIER PAUL BERZAITZ
PETTI
ESTITXU PINATXO
ALBOKA TALDEA
BIDE ERTZEAN
JON BASAGUREN

Sarrerak: 15 €

Lasarte-Orian: Argian, Jalgin eta Kultur Etxean.

Hernanin: Oinddi eta Txili tabernetan.

Usurbilen: Bordatxo tabernan.

Kutxabank Sarrerak

BABESLEA

LAGUNTZAILEAK



Azaleko argazkia:
ANDER PEREZ
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetza: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza tekniko: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaita Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko irailaren 28a, 2.430. zenbakia

ASTEKO GAIA

ESKOZIAKO ERREFERENDUMA Ametsa ez da hil.

ANDER PEREZ / 4

PERTSONAIA

FILIFE BIDART: «Iragana ukatzea etsaiaren jokoa egitea da».

SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

XENOFobia Marotoren gezurak agerian. MIKEL GARCIA

IDIAKEZ / 15

KILOMETROAK 2014 Herritik datozen irakaspenak.

IURE EIZAGIRRE / 16

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Sutearo, aseguru soziala

baserrietarako. MARTIN VICIOSO / 21

IRITZIAREN LEIHOA

EURO-GUNEARI HAUSPOA MIKEL ZURBANO / 22

IKUSI EZ ZITUENAK AINGERU EPALTZA / 24

BYE BYE BARCELONA GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 25

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 23

TXANDAN Bidaia-irak. ITXARO BORDA / 24

ZIRTA Anakronia beltzak. JOXERRA GARZIA / 26

ERDIKO KAIERA

ASIER LEATXE IBAÑEZ D'OPAKOA Musikarekiko pasioak
gidatutako ibilbidea. MYRIAM GARZIA / 28

IKUS-ENTZUTEKOAK GAIKKA IZAGIRRE / 30

LITERATURA ARITZ GALARRAGA / 32

MUSIKA JOXI UBEDA / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Ikusleen txanda. MYRIAM GARZIA / 35

OSASUNA JABIER AGIRRE / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

ARGIA EGUNA Musikaz blai hasiko da atzera kontaketa.

URKO APAOLAZA AVILA / 40

• **IRITZIA** Kobazuloetakoa iragan urruna denean.

JOSU LANDA / 43

TEKNOLOGIA BERRIETAKO HIZKERA Azpeitiar gazteek
euskalkiari zukua ateratzen diote. AMAIA UGALDE BEGOÑA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 45

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 45

NET HURBIL Galesko herritarrak ere astindu ditu Eskoziak.

PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ESKOZIAKO ERREFERENDUMA

Ametsa ez da hil

Inkestek aurreikusitakoa baino alde nabarmenagoarekin, ezezkoak garaitu du Eskoziako independentziarako erreferendumean, botoen %55,3 jasota. Orain, ikusteke dago noiz eta nola beteko duen Londresek Eskoziari botere berriak emateko promesa.

Testua eta argazkiak:

| ANDER PEREZ |

ESKOZIAKO erreferendumak dagoeneko utzi eta utziko dituen elementu positibo guztiez harago, lehenengo konstatazioa, agerikoena, zera da: independentismoak ez du lortu bere proiektua martxan jartzeko behar beste jende konbentzitzea. Gertu ibili da, baina, bistan da, lehia galdu du. Eta komeni da horren arrazoiak, nagusia behintzat, azpimarratzea. Unionistek beldurraren mamua astindu dute kanpaina osoan zehar, eta azkenean, emaitza onak eman dizkie. Bitartean, Eskoziaren independentziaren aldekoak ez dira gai izan etorkizunerako bermeak argi uzteko. Horixe du kontrari independentismoak, Eskozian eta beste edonon: hipotesi baten gainean lan egiten du, gauzagarria den baina gaur gaurkoz ukigarria ez den zerbaitekin gainean. Unionismoak proposatzen duena, hobe ala okerragoa, ezaguna da. Independentismoarena, aldiz, imajinatu beharra dago. Joko-zelai horretan, konfiantza da estatu independente bat lortu nahi dutenen tresnarik eraginkorrena; konfiantza transmititu, proiektuak behar beste ilusio piztu eta jaso dezan. Eskozian, agerikoa denez, beldurra ilusioari gailendu zaio. Eta horrek zer ikasia eman beharko lieke gainerako independentismoei ere, behin eta berriz beldurraren hormaren kontra jo nahi ez badute.

Dena den, ezinbestekoa da eskoziarrek egindako ariketa demokratikoa txalotu eta nabarmentzea. Batetik, erabakitzeko eskubidea modu naturalean gauzatu dutelako, herritarrei etorkizuna erabakitzen utziz. Bestetik, eta akaso garrantzitsuagoa, jendar-tearen gehiengo zabala inplikatu dutelako prozesuan. Irvine Welsh idazleak, *The Guar-*

dianen “Porrot Loriatsua” izenarekin argitaratutako gutunean esan du, “eskoziarrek benetako demokraziaren ideia berrasmatu eta berrezarri” dutela. Eta neurri handi batean, hala da. Erroldaren %86ko parte-hartzeak, zenbaki altu batetik harago, hamarkadetan bozkatu gabeko sektoreen itzulera suposatu du. Erabaki politikoetan zeresanik ez zutela uste zuten horiek, oraingoan bai, erabakiaren parte sentitu dira. Prozesua barneratzailea izan da, neurri handi batean, kanpaina langile auzoetako ateetarako eramateaz arduratu diren ezkerreko mugimenduei esker.

Erabaki politikoetan zeresanik ez zutela uste zuten horiek, oraingoan bai, erabakiaren parte sentitu dira. Prozesua barneratzailea izan da, neurri handi batean, kanpaina langile auzoetako ateetara eramateaz arduratu diren ezkerreko mugimenduei esker

Erreferendumerako kanpainak Eskoziako kultura politikoa astindu du bi urteotan. Batzuk diotenez, baita betirako aldatu ere. Joko politikoa alderdien eskutik uztera ohitua egon den jendar-tean, milaka dira prozesuan inplikatu eta zuzenean parte hartu duten herritarrak. Aipagarria da, batez ere, baiezkoaren aldeko blokeak aktibatutako masa soziala. Kaleko guda nabarmen irabazi dute, eta akaso, hori izan da hautestontzietan ere garaipena izateko aukera azken uneraino bizirik mantendu duen osagaietako bat.

Identitate auzia alde batera utzita, eredu sozial berri eta justuago baten eraikuntzan oinarritu du baiezkoaren aldeko kanpainak independentziarako aukera, Westminsterreko politika kontserbadore eta pribatizatzailetatik aldentuz. Horretan bat dator Eskoziako jendartearen gehiengo handi bat, erreferendumean bai ala ez bozkatu. Eta horren jakitun —eta inkestek baiezkoaren alde erakusten zuten joerarekin larrituta— egin zuen Londresek Eskoziari botere gehiago emateko promesa.

Irailaren 18ko erreferendumaren bezperan, manifestazio espontaneo batek hartu zituen Edinburgoko kaleak. Ehunka lagunek Eskoziako Parlamentuaren aurrean amaitu zuten baiezkoaren aldeko aldarri eta ikurrekin. Ezetzak irabazi arren, eskoziarrek urrats erraldoia eman dute burujabetzarantz.



Egun “normal” bat Edinburgon

HOLYROODEKO PARLAMENTUTIK gertu, Edinburgon, letra handiz ageri da Eskoziako independentziari buruzko erreferendumaren data. *18 September 2014*. Gaur, data bera agintzen dute egutegi eta agendek. Iritsi da eguna, eta etorkizuna erabakitzen doaz eskoziarrak. Galdera bakarra da, eta argia: “Independente izan beharko litzateke Eskozia?” Eta erantzunik, bi baino ez, bai ala ez.

Baiezkoaren zein ezezkoaren aldeko ekintzaileek azken unera arte luzatu dute kanpaina. Estu daude inkestak, eta azkeneko botoak ere izan dezake eragina emaitzan. Independentistek bukaerara arte eutsi diete bi urteotako kanpainako argudioei. Aspertu dira bozkatu ez duten gobernu baten –Erresuma Batuko Gobernuaren– politika neoliberalak jasateaz. Eredu sozial justuagoa nahi dute martxan jarri, eta ezinbestekoa dute horretarako Westminsterren atzaparretatik askatzea. Ezezkoaren aldeko kanpainakoek, beldurraren diskurtsoa erabat alboratu gabe, azken txanpan egin dute lehenbiziko proposamen sendoa. Ez dute gehiegi zehaztu, baina eskumen berriak agindu dizkiote Eskoziari, ezetzaren alde bozkatzuz gero. Maniobra erabakigarria izan daiteke. Izango da.

Gaur, batzuk zein besteak, hautestokietan kokatu dira, azkenengo botoa ere borrokatzeko. Egun arrunta da Eskozian, eta lanera sartu aurretik edo ondoren eman dute bozka herritarrek. Goizeko 7:00etatik gaueko 22:00ak arte, hamabost ordu dituzte bozkatzeko, eta jende kontzentrazio handirik gabe ere, etengabea da botoa ematera doazenen joan-etorria. Independentistak sinetsita daude baiezkoaren nagusitasunaz. Azken aste eta hilabeteetan kalean lortutako aktibazioak garaipenean sinesteko arrazoiak eman die. Margaret J. Campbell idazlearen kasua da. Bozkatu berri du, eta irribarretsu doa etxerako bueltan. Unionismoak garaituz gero zer gertatuko den galdetu diogu. Baita bitan galdetu ere. Baina erantzun bakarra du ahoan, behin eta berriro: “Baietza irabaziko du”.

Edinburgoko kaleetan ez dago aparteko girorik. Kanpainako ekintzaileak bozkalekuetan kontzentratzen dira batik bat, eta Europako estaturik gabeko nazioetatik etorritakoen-

tzat utzi dituzte kaleak. Sardinia, Korsika eta Flandeseko banderak ikusten dira, kalerik kale. Euskal herritarrek, trikitixa eta guzti, kantuan eta dantzari ari dira Royal Milen. Eta katalanek, Eskoziako bandera eta *estelada* osatu dute kandelekin, katedralaren pareko plazan. Bertatik pasa da gazte bat, *No, Thanks* txapa bularrera lotuta. Argi azaldu du ezezko botoaren zergatia: “Hamar urte pasa ditut lanean nire dirua aurrezten, orain dena galtzeko? Ez horixe!”. Beldur da Eskozia independente baten aurrean. Horixe izan da ezezkoaren aldeko kanpainaren helburua, beldurra sortu eta zalantzak piztea.

Gau luzea aurretik

Alea jacta est. Gaueko 22:00etan itxi dira bozkalekuak, eta dagoeneko gauzatu dute eskoziarrek erabakitze eskubidea. Gau luzea dator aurretik, botoen kontaketarako prozedura berezia hautatu baita: galdeketa mahai bakoitzeko botoak Eskoziako 32 hauteskunde esparruetako bakoitzean zehaztutako gunean zentralizatu beharko dira. Batzuk helikopteroz edo itsasontziz eraman beharko dira puntu horietara, Eskoziako irla urrunetatik. Gero, gau osoan zehar egingo dira publiko esparru horietako datuak, banan-banan, eta goizeko 6:00etarako aurreikusten da azkeneko emaitza.

Asko dira gaua esna eman duten eskoziarrak, telebistari itsatsita. Beste batzuk goizeko ordu txikitari jarri dute iratzargailua, azkeneko emaitza jakiteko. Une batetik bestera alda daiteke Eskoziako historia. Esnatu direnerako, orde, aurreratu samarra dago kontaketa. Ezezkoa nagusi da Eskoziako barruti askotan. Glasgowen, Eskoziako hiririk handienean, independentziaren aldeko jarrerak irabazi duela jakinarazi

dute goizeko 6:00etarako minutu gutxi falta direnean. Arnasa hartu dute independentistek, baina ez behar beste. Aldea 25.000 botoena baino ez da izan Glasgowen, eta ez da nahikoa ezezkoak hartutako distantzia eteteko. Gainera, Edinburgoko datuak falta dira oraindik, eta jakina da unionismoa gailenduko dela hiriburuan. Baita alde nabarmenez ere: %61eko babesa lortu du ezezkoak. Erabakita dago guztia, oraindik Highlands-etako datuak falta badira ere. Ezezkoak irabazi du

**Royal Milen gazte batek
No, Thanks txapa darama
bularrera lotuta: “Hamar urte
pasa ditut lanean nire dirua
aurrezten, orain dena galtzeko?
Ez horixe!”**

Akaso sekula ez dugu jakingo *Better Together* kanpainaren azken maniobra inprobisatua ala aurretik pentsatua izan zen. Baina argi dago funtzionatu duela. Ezezkoak irabazi du erreferenduma, baina Eskoziako Gobernuak lehen ministro orde –eta behin behinean, Salmonden ordezkoi– Nicola Sturgeonek txio batean aipatu duenez, “*Status Quo*ak ez du babesik jaso”. Horregatik, agian, bidezkoa litzateke esatea baiezkoak ala ezezkoak baino, hirugarren aukerak irabazi duela galdeketa. Ez bozkatu duten eskoziarrek, askok bederen, ez dute itsu itsu bozkatu orain arteko estatusa mantentzeko. Hortik urrun, aukera bat eman diote Westminsterri, beste

aukera bat. Cameronek hori baliatzen jakin beharko du aurrerantzean.

Oraingoan, bistakoa da denbora irabazi duela. Baina pentsa liteke berak eraikitako sarean erori dela, Eskoziarekin batera, Ingalaterra, Gales eta Irlandako iparraldeari ere eskaini baitizkie eskumen berriak. Eskoziako autonomia prozesua beste hiru nazioen prozesuen erritmo berean garatzeko baldintza jarri du Erresuma Batuko lehen ministroak, eta horrek, ezinbestean, lehenengoa atzeratuko du. Alderdi Laboralistak dagoeneko iradoki du ez duela begi onez ikusten Ingalaterrarako parlamentu propioa, bertan indar eskasa izango luketelakoan, *tory*-en (kontser-



Edinburgon, erreferendumaren biharamonean, emango luke ez dela ezer pasa: “Oso serio daude kaleak, oso isil. Jende askok *shocka* dauka barruan” dio baiezkoaren aldeko emakume batek.

erreferenduma, eta segidan datoz batzuen negarrak eta bes-teen poz algarak. Eskozia ez da, momentuz behintzat, estatu berri bat izango. Hala erabaki dute bere herritarrek.

Goizean, euritsu esnatu da Edinburgo. Kanean normal-tasuna da nabari, edozein ostiralen antzera. Esan liteke ezer ez dela pasa. Desagertu dira erreferenduari buruzko erreferentzia gehienak, eta inondik ez dira ageri aurreko egune-tan batzuk eta besteek zeramatatzaten txapak: *Yes Scotland*. *No, Thanks*. Bakoitzak bere barrurako gorde du hautes-ton-tzian hartutako hautua. Ingurura begiratuz azaldu du egoe-ra Jaquelinek, 55 urteko andreak: “Oso serio daude kaleak, oso isil. Jende askok *shocka* dauka barruan”. Baiezkoaren alde egin zuen erreferendumean, eta “oso triste” dagoela dio.

Hortik gertu, Meadows parkearen inguruan, bazkalorduko atsedenean daude inguruko eskola militar bateko nerabeak. Uniformea daramate horietako batzuk, *Union Jack* eta guzti.

Ezin izan dute bozkatu, hamabost urte baino ez baitituzte, baina galdetu beharrik ere ez dago zeren alde dauden jakite-ko. Louiek adierazi du iritzia, gainerakoek, inguruan, buruare-kin baietz dioten bitartean, gora eta behera: “Oso pozik nago emaitzarekin. Uste dut oso ona dela batasunaren barruan jarraitzea”.

Bananduta daude iritziak, erreferendumeko emaitzak bezain beste. %55,3 eskuratu du ezetzak galdeketa, %44,7 independentziarako aukerak. Eta emaitzen aurrean, dimisioa iragarri du Alex Salmond Eskoziako lehen ministroak. Agur-rean, independentziaren “ametsa sekula ez dela hilko” adie-razi du. Eta mezua ongi jaso dute kaleko independentistek. Baietz bozkatu dutenen artean, inork ez du betirako galdutzat ematen aukera. Sinetsita daude etorriko dela beste erreferen-dum bat, eta baita irabaziko dutela ere. Baina hori, izatekotan, beste egun batean izango da. Gaur, berriro ere, egun norma-la baita Edinburgon.



Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



Pentsa zitekeenaren kontra, porrotak ez ditu kanpainan zehar baiezkoaren alde mobilizatutako herritarrek atzera bota. Irailaren 18tik hona 4.000 eta 1.200 herritarrek eman dute izena, hurrenez hurren, SNP-n eta Alderdi Berdean.

badoreak) mesedetan. Gordon Brown Erre-suma Batuko lehen ministro ohi eta azken asteetan ezezkoaren aldeko kanpainako aurpegirik ezagunenak, “Londresek Eskoziari emandako hitza beteko” duela berretsi du. Baina dagoeneko piztu da eztabaida alderdi unionista nagusien artean, prozesua nola garatu. Eta ados jarri bitartean, halabeharrez, luzatu egingo da Eskoziari botereak itzultzeko prozesua. Egoerak mesfidantza sortu du Eskozian, eta Salmondek dagoeneko esan du ez bozkatu zutenak “engainatuak” izan direla. Ziurrenik, goiz da oraindik horrelako ezer ondorioztatze-ko. Baina egia da oraindik ikusteke dagoela zertan geratuko den Londresek agindutako botere eskualdaketa, eta egia da ere eskoziarrak ez dutela onartuko autonomia deskafeinaturik.

Momentuz, eta normala den moduan, porrot sentazioa da nagusi Eskoziako independentisten artean. Baina asko da haien alde dutena. Erreferendumeiko datuen arabera, 55 urtetik beherako eskoziarren

arteana nagusi izan zen independentziaren aldeko joera, eta beraz, independentziaren aldekoak dira belaunaldi berriak. Gainera, eta pentsa zitekeenaren kontra, porrotak ez ditu kanpainan zehar baiezkoaren alde mobilizatutako herritarrek atzera bota. Irailaren 18tik hona 4.000 eta 1.200 herritarrek eman dute izena, hurrenez hurren, SNP eta Alderdi Berdean, eta beste 4.000k aurreratu dute Radical Independence Campaignek azaroan egingen duen konferentzian parte hartuko dutela. Oinarri horrekin, independentismoak nahikoa arrazoi du oraindik aurrera egiteko. Salmondek bere agurrean esan zuen moduan, “ametsa ez baita sekula hilko”. Momentuz, bizirik jarraitzen du. Eta baliteke denbora kontua baino ez izatea amets hori betetzea, Londresek orain arteko politiken norabidean jarraitzen badu, eredu sozial berri bat eraikitzeko asmotan dabilzan eskoziarrendik gero eta gehiago alden- duko baita. ■

Londresek orain arteko politiken norabidean jarraitzen badu, eredu sozial berri bat eraikitzeko asmotan dabilzan eskoziarrendik gero eta gehiago alden- duko da

laren 18tik hona 4.000 eta 1.200 herritarrek eman dute izena, hurrenez hurren, SNP eta Alderdi Berdean, eta beste 4.000k aurreratu dute Radical Independence Campaignek azaroan egingen duen konferentzian parte hartuko dutela. Oinarri horrekin, independentismoak nahikoa arrazoi du oraindik aurrera egiteko. Sal-

mondek bere agurrean esan zuen moduan, “ametsa ez baita sekula hilko”. Momentuz, bizirik jarraitzen du. Eta baliteke denbora kontua baino ez izatea amets hori betetzea, Londresek orain arteko politiken norabidean jarraitzen badu, eredu sozial berri bat eraikitzeko asmotan dabilzan eskoziarrendik gero eta gehiago alden- duko baita. ■



bertso saioa

argiaren alde

Irailaren 27an

Usurbilgo frontoian • 18:00etan



Amets Arzallus



Uxue Alberdi



Miren Amuriza



Julio Soto



Sustrai Colina



Rosi Lazkano

5 € • sarrera bertan

argiaren
eguna

BABESLEA

LAGUNTZAILEAK

«Iragana ukatzea etsaiaren jokoa egitea da»

“Entzun dut ene baitan mendiaren deia...”

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Gure baitan ibai bilakatzen doan erreka omen kontzientzia politikoa.

Euskal nortasuna beti zaindua izan da etxean, baina ez diskurtso politikoen bidez, naturalki. Beti azpimarratu zaigu harro behar genuela gure nortasunaz, euskaldun izateaz, jendetasunez eta zintzotasunez ez genuela burua apaltzerik kanpotarren aitzinean, frantsesez aritzeak ez zituela gu baino hobeak egiten. Lema hori ez zen etxekoa bakarrik, herrian eta eskola irakasle zenbaiten ahotan maiz entzuten genuen. Arrunt giro euskaldunekoa zen Baigorri, baina kanpotarrak jiten hastearekin bat ohartu ziren batzuk euskal nortasunari buruzko arriskuez.

Berantago, Baigorritik jalgirik, Uztaritzeko seminarioan harrapatu ninduen 1968ko mugimenduak. 15 urteko mukizua nintzen, baina hor hasi ginen biltzarrak, planteak eta manifestazioak egiten. Baionara joan ginen manifestatzera. Hori izan zen ene lehen manifestazioa. Apezentzat hori sekulako afruntua izaki, denak kanporatu gintuzten, baina iraultza egina zen. Espirituetan, jarretan, dena aldatu zen, “aski da, guk ere badugu zerbait errateko” aldarrikatu zuen jendeak. Espiritu aldaketa horrek izigarriko eragina izan du nigan eta militante bilakatuko zen Iparraldeko bigarren abertzale belaunaldian.

Hala, berezko urratsa izan zen 1970eko hamarkada hastapenean IK sortzea?

Gure buruaren jabe izateko mugimendua indartzeko erakunde armatu sendoa beharrezkoa zen guretzat. Konbentzituak ginen eta sortu genuen. Enbatakoak sobera epelak iruditzen zitzaizkigun, ez zirela aski urrun joaten, hauteskundeetara mugatzen zirela. Garai hartan hauteskundeetara aurkeztea ez zen premiatsua guretzat, ez zegoen baldintza

egokirik, emaitza kaskarrek mugimendua indartu beharrean ahuldu egiten zuten. Gure ustez, lan sakonagoa eta jarraikiagoa eraman behar zen gizartean, ideia abertzaleak hedatu eta errotzeko, eta behin kontzientziak pizturik joaten ahaliko ginen bozetara. Hori bai, hastapenetik genekien borroka armatuaren ondorioak zein izaten ahal ziren. Bagenekien ekintzek errepresioa ekarriko zutela eta errepresioak emanen zizkigula arrazoiak ekintza gehiago egiteko. Ekintza, errepresioa, ekintza, errepresioa... Gizartea arazo batez ohar-tarazten duen kate bat sortzen da. Errepresioa borroka armatuaren estrategiaren parte da, nonbait. Horregatik, bide hori hautatzen duzunean badakizu izanen direla hilak, zaurituak, presoak, eta sasira sartu beharko duten militanteak. Hautua egitean onartzen dituzu ondorioak.

Nolakoa da sasiko bizitza?

Militante batentzat sekulako abantaila da sasia izatea, eguneko 24 ornak dituzu borrokarako. Lana, familia, lagunak, ageriko militantzia... Oso zaila da erakundearen gordez-kako lanak garatzea zu agerian izanik. Denbora arazo izigarriak pausatzen ditu,

NORTASUN AGIRIA

Filipe Bidart (1953, Baigorri). Ikastolako irakasle eta hedapen lanetan aritua, Iparretarrak (IK) erakunde armatuaren sortzaile eta buruzagietako bat izan zen. Sasia urte batzuk emanik, 1988an atxilotu zuten Bokalen, eta bizi osoko zigorrera bi aldiz kondenaturik, 2007an utzi zuen kartzela baldintzapeko askatasunean. Joan den otsailetik frantses justiziarekiko zorrak kitaturik, Baigorri bizi da egun.



hautu deserosoak eginarazten, eta erretzeko arrisku handiagoa duzu. IKren sorreratik sasian sartu arte 8-9 urte pasa ditut hola, eta biziki pisu eta lanjerosa da. Brakatze [edo bide-kontrol] baten ondotik, polizia hurbil nuela ikusirik, sasian sartu nintzen eta bat-batean bizitza legaleko zeregin guztiak desagertu ziren. Klandestinitatean borroka baizik ez zaizu gelditzen, eta motibatua eta konbentzitua bazara, bete-betean murgiltzen zara. Sekulako askatasuna da zinez hautatu duzuna egitea. Gero, ez-idurian, arrisku gutxiago da sasian errealtatean baino. Zuk hautatzen dituzure ibilmoldeak, zure mugimenduak, eta poliziak ez du elementurik jakiteko non zaren, zure inguruarekin moztu duzunez ez daki nora joan behar duen zure xerka. Herritarren partetik laguntza eta azpiegitura aski bagenuen, eta arraina uretan bezala bizi ginen.

1982an bi jendarme erailak dira Baigorriin. Batallón Vasco Españolak hartzen du ekintza bere gain baina poliziak IKri egozten dio atentatua eta zure inguru osoa atxilotzen. Nola bizi da hori sasitik?

Aterpetzen gintuen jendearen bizitza intimotan beldurra ikusten nuen. Baigorriko atentatua gure aurka jotzeko baliatu zuten, eta batez ere, izua hezurretaraino sartzeko. Hor arte, baziren arrangurak, baina joko bat bezala zen. Lehen hilak direlarik, alta, jendea gogoetatzen hasten da: merezi du, ez du merezi. Kasu honetan gogorrena ez zen gertakaria bera, egin ziguten propaganda baizik. Nahi zuten bezala aurkeztu zituzten gauzak, berri-sail guztietan matraka eman ziguten, denetan erakusten zituzten polizia eta jendarmeak jendea bortizki atxilotzen, eta guk gure xokotik “ez gara gu izan!” oihukatzen bagenuen ere alfer-alferrik zen. Inork ez zigun kasu egiten, inguruko jendea ikaraz paralizatua zen, eta sasian denak hori barne-barnetik sentitzen du. Biziki garai gogorrak izan dira bai pertsonalki eta bai mugimenduarentzat. Baina denborak beldurra lantzen du, konfiantza berriz jiten da, eta berriz partitzen zara oinarri sanoago baten gain. Hori bai, lehen dudak bazinen, orain badakizu etsaia nolakoa den, nola jokatzen duen eta zer indar duen.

Zure sasi-denboran, hildakoak izan dira bi aldeetan, baina batez ere, zuenean. Zer harreman zenuen heriotzarekin?

Armak hartzen dituzun mementotik pentsamendu saihestezina da. Militanteak tirokatuta edo lehergailua eskuetan zapartuta erortzen ikusten dituzunean, badakizu zuri gertatzen ahal zaizula. Alabaina, bere ondorioak osoki onartuta borrokatzeko hautua egin nuen eta banekien tiroketa batean eraila izateko proba-

bilitateen %90 nuela. Aski segur nintzen gertatuko zela, baina eginahalak egiten nituen gerta ez zedin, ahal bezain luzaz segitzeko borrokan, ahal bezain luzaz bizitzeko, eta lagunak ere ahal bezain luzaz bizirik iraunarazteko. Hartzen nuen arrisku oro ahal bezainbat kontrolatzen saiatzen nintzen, baina ezinezkoa da den-dena kontrolpean ukaitea. Horregatik, badakizu gertatzen ahal zaizula, baina aldi berean, egun guztian horretan pentsatzen ari bazara ez duzu deus egiten, ez zara bizi.

1988ko otsailaren 20an atxilotu zintuzten Bokalen. Zer pasa zitzaizun burutik?

Zepoan erori ginela. Arma hartu eta aterabide bat atzematea izan zen lehen erreakzioa, baina fite oharu ginen ez zela sekulako sarraskia ez zen ihesbiderik. Beti kasu egin dugu sarraskiak saihestu eta ahalaz bizirik ateratzeko. Bizitzak segitzen dueno bada esperantza, bada borroka. “Aldi huntan haiek irabazi dute... baina aldi huntan bakarrik” pentsatuz pausatu nuen arma, eta instant hartatik lehenbailehen eskapatu behar nuela baizik ez dut izan gogoan. Lehenbailehen eskapatu borroka segitzeko.

Ez zizkizuten lanak erraztu. 25 hilabetez atxiki zintuzten bakarturik. Nola jasaten da hori?

Egun bat bestearen ondotik. Egun bat, beste egun bat... Hastapenean ez dakizu zenbat iraunen duen, mementoa bizi duzu. Burua arras ez galtzeko, espiritua okupatzeko, eta zure gorputza ahal bezainbat trempuan atxikitze memento hori antolatzen duzu. Nahiz eta bakartasunetik eskapatzea kasik ezinezkoa dela jakin, etengabe ari zara aterabide posible bat kausitu nahian, horrek atxikitzen zaitu. Arazoa da bakartasunean emeki-emeki errealtateetik urruntzen zarela, oharkabean beti gauza bera egiten ari zarela, beti gauza bera pentsatzen, ito eta errealtatearekiko lotura oro galtzeraino. Burua galtzeko arrisku gorrian zaude eta ez zara oharitzen. Hori da tortura zuria. Nik ez dut erortzeko beldurrik ukan, ez bainaiz oharu, baina memento batez ez nintzen biziki argi eta zuzen izanen. Pentsa, hastapenetik hori baizik ezagutu ez nuen, presondegia bakartasuna zela uste nuen. Handik astero kartzelaz aldatzeko baldintzarekin atera nindutenean, askatasunari buruzko urrats bat iruditu zitzaidan. Patiora atera nintzen lehen egunean alimalekoa iruditu zitzaidan, zerua ikusten zen, jende andana zegoen, bide zuzenean 20 metro ibili nintzekeen... Ikaragarritzko buruko minarekin sartu nintzen zeldara. Alabaina, fite oharitzen zara presondegi arruntak ere badituela bere mugak, bere arazoak.



Eta urte batzuk lehenagoko Paueko kartzelatik IK-ko bi preso askatu zenituztela gogoan, ihesaren xomorroak hor segitzen du...

Esperantza hori banuen. Entsegu bat baino gehiago egin ditugu. Proiektu batzuk aski aitzinatuak genituen, baina azken mementoan beti gertatu da zerbait gure asmoa galarazi duena. Nahigabe gogorra da hori, etsipen beltzean sartzen zaitu, aldiro berriz hutsetik hasi behar, beste nonbait, beste baldintza

batzuekin... Eta denbora pasatzen da. Ene betiereko kondenak esaten zuen gutxieneko 15 urteko segurtasun epea bete dudana egunera arte saiatu naiz kartzelatik ihes egiten. 15 urte beterik soilik erran diot ene buruari ideia hori ahanzteko, Euskal Herrian eta IKren baitan egoera aldatua zen, eta ni sasiaz izatea hain beharrezkoa ez izateaz gain legez ateratzeko manera bazen. Horrek eraman ninduen buru-belarri baldintzapeko

askatasunaren borrokan murgiltzera, lau urte berantago, preso degia gibelean utzi arte.

Baigorri itzuli aitzin bost urtez egon behar izan duzu Besiers-Biterin. Nola ikasten da berriz bizitzen hemeretzi urtez preso egon ondoren?

Preso degian bizia ez da gelditzen. Kanpoko munduarekin moztua zara, baina euskal presoek bisita anitz ditugu, gutunak, badugu konektatuta atxikitzen gaituen lotura azkar bat. Ez zara arras ohartzen aldaketez, baina entzunak dituzu, kontatzen dizutenari esker irudikatuak. Badakizu ez dela lehen bezala izanen, espiritu, ikusmolde eta joerak aldatu direla. Internet, mugikorrak... 1988tik 2007ra sekulako aldaketak izan dira, badakizu aldaketak izan direla eta badakizu zure burua prestatu beharko duzula horiek barneratu eta menperatzeko. Prestatzen zara, baina ez zara inoiz arras prest. Kartzelatik ateratzea herri arrotz batean sartzea bezala da. Bitxikeria da jende anitz ezagutzen duzula herri arrotz horretan, baina jende horiek aldatu dira adinarekin, biziarekin, eta hastapenean zu oartzten ez bazara ere, zu ere ez zara lehengo. Banekien denbora beharko nuela, eta Biterriko pasaia behartu horregatik edo horri esker emeki-emeki sartu naiz errealtate berrian. Orain, badira bi urte pasa Baigorri naizela, etxean, anaiarekin lanean, eta baldintzapeko askatasuna otsailean bururatu zitzaidan.

2007tik hona anitz aldatu da Euskal Herriko panorama politikoa.

Ni preso nintzela, Lizarra-Garaziz geroztik, mahai gainean zegoen borroka armatua uztearen eztabaida. IK-k 2000. urtean erabaki zuen borroka armatua utzi eta estrategiaz aldatzea. Orduan, hauteskundeetako plataforma zen AB, eta Iparraldeko ezker abertzaleko indar ezberdinak bilduko zituen mugik.



INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com

AZKEN HITZA

Erabakitzeko eskubidea

“Erabakitzeko eskubidea onartu eta errespetatzeak Euskal Herria badela eta bere geroa erabaki dezakeela erran nahiko luke. Hori irabaztea %90a irabaztea litzateke. Eskozia eta Kataluniari so loriatzen gara, baina ez da berehalako. Borrokatu beharko da”.

mendu politiko zabal baten alde egin genuen apustu. Indarrak metatzeko ezinbestekoa zen borroka armatua uztea. Horregatik eman genuen urratsa. Borroka armatuak eman zezakeena eman zuela iruditzen zitzaigun, emaitza baikorrak izan zituela, egoera aldatu zuela eta aldatzen segitzeko tresna berriak eman zizkigula, hori baliatzeko tenorea zela. Borrokatzeko garaitik eraikitze garaira pasa ginen. ETakoek ere antzeko debatea zuten. Arazoa da, ene ustez, ez dutela jakin aski fite atzematen borroka armatutik ateratzeko manera. Zerbait erdietsita, Madrilekin negoziatuta, itxi nahi zuten borroka armatuaren aroa. Entseatu, entseatu eta entseatu, urteak pasa dira, eta konfiantza pitzatu da, sinesgarritasuna eta eraginkortasuna galdu, eta gero eta zailagoa zen presoen auzia bederen konpontzea. Aspalditik naiz estrategia aldaketaren aldekoa, eta etorri denean, begi onez hartu dut. Berantegi etorri dela? Agian, baina etorri da, eta ongi etorria. Horiek hala, estrategia aldaketa aitzina eramaten kostatzen dela ikusten ari gara. Presoak bidean utziak izan dira, dilindan. Banaka-banaka atera behar badira noiz aterako dira azkenak, hoge urteren buruan? Hori onartzeko prest gaude? Horretan ezin da amore eman, amnistia bat behar da. Estrategia aldaketak ez du erran nahi dena uzten dela, borroka beste gisa batez segitzen duela baizik.

Hala nola?

Ez da gehiago borroka armatua erabiltzen indar harremana probokatzeko. Orain, euskal gizarteari dagokio lehentasuna eta pisua hartzea indar harreman hori gauzatzeko. Horretarako, mugimenduak gizarteari buruz itzuli behar du. Batzuetan iduri du egungo estrategiaren motorra iragana ukatzea dela, eta ez, estrategia aldaketa iragana baloratzea da, borroka eman dituen emaitza eta tresnen baliatzea beste estrategia bat zutik emateko. Madril eta Parisek ez dute deus laxatuko indar-harremarik gabe. Horregatik, iragana ukatzea etsaiaren jokoa egitea da. ■



XENOFOBIA

Marotoren gezurrak agerian

Javier Maroto Gasteizko alkatearen “kanpaina xenofobo, arrazista eta klasista” deseraikitzen duen txosten mamitsua kaleratu du Gasteizko Alde Zaharreko La gente rula kolektiboak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

1) “ETORKINAK gizarte laguntzetatik bizitzera datoz”, dio Marotok, eta horrek “erakarri” egiten ditu kanpotarrak. EAEn, ordea, 2012an baino kanpotar gutxiago zenbatu zituzten 2013an (3.730 inguru gutxiago) eta Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiaren arabera, krisiak eraginda EAEtik alde egiten dutenen %85 kanpotarrak dira. Inguruarekin konparatuta (Espainiako Estatua), askoz txikiagoa da EAEn datozen migratzaileen kopurua, lan aldetik ez zaielako erakarri (eraikuntza, ostalaritza, nekazaritza... gutxiago dago-eta gurean). Halaber, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzeko, aurreko hiru urteetan jarraian EAEn erroldatuta egotea eta etxebizitza izatea beharrezkoa da, edo urtebetez erroldatuta egotea baldin eta gutxienez bost urtez lan egin badugu. Beraz, ezinezkoa da iritsi eta *de facto* laguntzak jasotzen hastea.

2) “Gizarte laguntzetan egiten den iruzurra eskandalagarria da”, dio Marotok, eta ez da Gasteizko udal laguntzez ari, iruzurrik egon ez dadin Udalean neurriak hartu dituztela gaineratu baitu. Beraz, Eusko Jaurlaritzak eta zehazki Lanbidek kudeatzen dituen laguntzez (DBE) ari da. Lanbideren ikerketen arabera, baina, laguntza horietan egin den iruzurra %1ekoa da.

3) “Aljeriar eta magrebtar gehienak gizarte laguntzetatik bizi dira Gasteizen”, dio Marotok. Aldiz, La gente rularen txostenak nabarmendu duenez Lanbideren datuek argi uzten dute DBE kobratzen dutenen gehiengo handia “bertakoa” dela. Laguntza jasotzen dutenen %60,7 euskal herritarra edo Espainiako Estatuak dira (39.780), eta %9,3 magrebtarrak (6.114). Areago, migratzaileen artean Hego Amerikako jendea da prestazio gehien jasotzen duena, ez magrebtarra. Kontuak kontu, Lanbideko Juan Ibarretxeren hitzak gogoratuz, “jatorrietatik harago, sistemaren baitan dauden pertsonak hartzen dira kontuan, eta legez dagokie laguntza kobratzea”.



Sei urteren
ondoren
Diru-sarrerak
Bermatzeko
Errenta jasotzen
jarraitzen duten
kanpotarren
kopurua %7koa
da, eta bertakoen
artean, %43koa.
Irudian, Javier
Maroto Gasteizko
alkatea.

4) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen bizitza guztia eman dezakezula eta etorkinek hori egiten dutela iradoki du Marotok. Baina errenta horrek baldintzak ditu, tartean Lanbidek eskaintako lanpostua ez ukatzea, ongi arrazoituriko argudiorik ez badago. Gainera, Arartekok egindako ikerketan oinarrituz, sei urteren ondoren diru-laguntza hori jasotzen jarraitzen duten kanpotarren kopurua %7koa da, eta bertakoen artean berriz, %43koa.

5) Diru-laguntza horiek etorkinei emateak bertakoak laguntza barik uzten dituela iradoki du Marotok. Beste behin, datu bidez gezurtatu dute txostenean: Gasteizen kasuan, zehazki, bertakoak dira errenta jasotzen dutenen gehiengo, eta kopurua goraka doa. Gainera, “eskubide subjektiboa” da DBE; alegia, baldintzak betetzen ditue-

nari legez ordaindu behar dio errenta administrazioak, eta hortaz, denei erantzuteko handitu egingo da diru poltsa, behar izanez gero.

Zergatik ari da gezurretan alkatea?

“Gasteiztartasun zaharkituenaren ordezkari” izatea egotzi dio Alde Zaharreko kolektiboak Marotori eta bi arrazoi nagusi aipatu dituzte horretarako: gaiak hitz egiten jardun dezagun denok, “PPren funts-desbideratzeaz eta alkateak bete ez dituen promesaz hitz egin beharrean”. Eta “edozein gizarteko sentimendurik berekoienak azaleratzen dituen kalan botoak arrantzatu nahi dituelako, ‘gu, hemengoak’ eta ‘besteak, hemengoak ez direnen’ artean harresiak eraikiz”. Ikuspegiren azken datuen arabera, hain juxtu, migratzaileengana jarrerak okerrera egin du gizartean.

Txostenean, oso bestelako errealitatea irudikatu du Ellacuria fundazioko Martin Iribarrik: “Krisi garaian administrazioa egiten ari den kudeaketak askoz gehiago ahultzen ditu dagoeneko ahulenak direnak, bereziki Atzeritarrentzako Legeak betebeharez zamatuta eta eskubi-deak murrizten dizkielako”. ■



Herritik datozen irakaspenak

Poesia herriaren ahotik hartu zuela zioen Gabriel Arestik eta herriaren ezagutza bizilagunengandik jaso dutela esan ahal izango dute Orioko gaztetxoek, herriko curriculuma prestatzen ari baitira. Informazio bilketa amaituta, ikastetxeei dagokie orain aztertu eta ekarpenak egitea, tartean Kilometroak jaia prestatzen dabilen Orioko Ikastolari.

| IURE EIZAGIRRE |



Herriko bi ikastetxeetako umeak aurreko ikasturtean izan ziren Oriori buruzko ezagutzak autopista azpiko zutabeetan islatzen.

ARESTI BAINO, Jorge Oteiza edo Benito Lertxundi herrikideak eta hauen lana izango dute erreferentziatzat oriotar gazteek, horiek baitira herriko ondare. Hain zuzen ere, egitasmo honen garapenean behin baino gehiagotan izan dute gogoan eskultore oriotarraren adierazpen hau: “Zerbait berria sortzen duenak arraunlari baten tankeran egiten du, aurrera egiten du baina bizkarka, atzera begira, iraganera. Atzera begira lantzen du bere bide berria”. Hezkuntzan egiten ari zirena aztertu eta eztabaidatzeak ekarri zuen Orioko Curriculumaren beharra, izan ere, 2010ean egindako *O3ten.HSN* jardunaldietatik ateratako ondorioak izan ziren herriko eragileen arteko harremanak bideratu eta Orioren izaera garatzeko herritik sortutako curriculum baten beharra. Honen helburua Euskal Curriculumari ekarpena egitea da.

Oteizaren esaldiak berak agerian uzten ditu oriotarren izaeran eragina izan duten ezaugarrietako batzuk: arrauna eta itsasoa. Curriculumari begira, Giza eta Gizarte Zientzien arloan aztertu eta txertatu dute Orio eta itsasoaren arteko harremana. “Orio, itsasertzean bizi den herria izanik, errioak, itsasoak, arrantzak, ontziolek, arraunak, baserriek... asko eman digute eta zer esanik ez bere itsas kulturak, sormenak, tradizioek, istorioek”, dio Orioko Curriculumeko Ikastolako ordezkari Eli Urdangarinek. Horregatik, herriaren ingurune fisikoaren oinarritzko ezaugarriak eta aniztasuna ezagutarazi nahi dizkiete ikasleei, baita itsasaldean egoteak eragindako aldaketa ekonomiko, sozial zein kulturalak ere. Herri ontzigilea izanik, Orioko txikienek ba al dakite, adibidez, duela hamarkada batzuk zergatik zeuden hainbeste itsasontzi portuan eta hain gutxi gaur egun?

Irakaspena baina, ez dute edozein modutara egin nahi eta oriotarren ezaugarriak zehazteko bilketa lanaren aurkezpena egin zutenean, ekainean, Gizarte Zientzietan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde egin beharreko lana azpimarratu zuten. Besteen parean jartzeko nabarmendu egin behar direla azaldu zuten eta esne-banatailean, azoketan ibiltzen direnen eta saregi-leen irudiak gogorarazi zituzten.

Informazio bilketan beste bi alor ere bereizi dituzte: Natur eta Osasun Zientziak eta Musika Hezkuntza. Lehenengoari dagokionez, herriko biodibertsitatea; osasuna, higie-neza eta elikadura; biztanleriak ingurunean duen eragina eta garapen iraunkorrerako bidea aztertu nahi dituzte. Musikaren arloan, berriz, interesgarri deritzote oriotarrak batzen dituen hogeiki kanten zerrenda osatu, musikaren historia jakin eta dantzak ezagutzeari.

Euskaldun kontzientek

Curriculumaren alde lanean ari direnek badakite herriko haurrek nekez izango dutela arazorik euskaraz ikasi eta aritzeko, “euskararen arnagune” baita Oriko. Ondorioz, bestelako erronkak dituzte. Herriko hizkeraren aberas-

tasuna mantendu nahi dute, garai bateko bizi-moduak pixkanaka galtzen ari den hitz multzoa utzi baitzuen herrian, asko itsasoari eta ontzigintzari lotuak. Herriko literaturak ere lagunduko die horretan.

Orioko Curriculum Sortzen taldekoek gazteen jarreraren eragin nahi dute eta garbi izan dute euskal hiztun kontzientek sortu behar dituztela. “Euskal Herrira kalitatezko euskal hiztunak esportatu behar ditugu”, adierazi zuten herritarren aurrean egindako aurkezpenean.

Herritarren parte-hartzea

Horrelako proiektuen aurrean izaten da edukien erabakia eta idazketa aditu talde baten esku uzteko aukera, baina Orion bertako “aditu” eta “aritu”ek egin dute lan. “Orioko Curriculum osatzeko orduan herri eragileek zeresan handia dute. Herriaren izaera biltzen duen dokumentu pedagogiko batean herriko ikastetxeak parte garrantzitsua dira. Hezkuntza ikastetxearen eta herriaren arteko zerbait denaren kontzientzia piztu nahi dugu”, dio Urdangarinek.

Horregatik, herrian bertan dituzten informazio iturriak baliatu dituzte oriotarren nor-tasuna garatu duten elementuak bilatzeko.



ERBI BUS

MICROBUS EGOKITUAK 19 plazatik 43 plazetara
Txangoak, bodak, bidaiak, sagardotegiak...

Egiburuberri poligonoa 13, OV lokala
Orereta - Erretera
Tel: 943 008 579 - 656 704 021
www.erbiautobusak.com / info@erbiautobusak.com



BRANKA

Kontxako olatuen gainean, Haize Orrazaren ondoan, bertako produktuenganako arreza bereziarekin

Urte osoan
menu berezia **36 €**

Eduardo Chillida pasealekua, 13 · Donostia
© 943 317 096 · Faxe: 943 214 890 · branka@branka-tenis.com
www.branka-tenis.com



Intxausti
harategia · urdaitegia

Juan Martin Intxausti

Grupo La Salve, 33
Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943 810 489 / 687 527 664

Gaztetxeko eta Esperientzia Eskolako kideek hezikidetzari buruzko gosari-tertulia egin zuten, gizon eta emakumeen arteko lehengo eta oraingo harremanak aztertzeko.



IBARROLA BEHEKOA BASERRIA

Laurgain auzoa, 20809 Aia
☎ 943 83 45 49 / 659 21 53 92 · ibarrolabehekoa@hotmail.com
www.nekatur.net/ibarrolabehekoa



IZETA
SAGARDOA

Elkano Auzoa Izeta Goikoa Baserria
20809 Aia – Gipuzkoa
☎ 943 131 693
izetasagardotegia@gmail.com · www.izeta.es

Jatetxea - Restaurante

NICOLASA



*Txangurroa labean eta arraia plantxan
Eguneko menua eta bereziak*

☎ 943 515 469
Donibane, 59 · Pasai Donibane (Gipuzkoa)



Karkara herri aldizkaria izan da ardatzetako bat eta aurkezpenean argi adierazi zuten herriko erreferentziazko altxor bat dela. Interneten eta Ahotsak proiektuaren elkarrizketetan ere material ugari aurkitu dute.

Baina herritarrenganako hurbiltasuna are handiagoa izan da horietako batzuekin zuzenean izandako solasaldiei esker. Maria Sagario Miralles herritarrek, adibidez, bere amonak frankismo garaian Maria Maestra haur eskolan bizitako esperientzien ekarpena egin die Curriculumari eta oriotarrei. Patxi Oliden “Danbolin”-ek, berriz, musikaz, euskaraz, gerraz, perretxikoez eta abarrez hitz egin zuen. Eta azkenik, Martin Lizasoren hitzak jaso zituzten. Elkarrizketa hauek material osagarri gisa erabiliko dituzte.

Datu bilketan, esan bezala, herriko eragile ugariren laguntza izan dute Orioko Curriculum Sortzen taldekoek. Iaz Ijitoen Akordioa sinatu zuten taldeetako kideak arduratu dira informazioa biltzeaz, eragileak eta herritarrek “subjektu aktibo” bihurtuz. Arlo guztietako eragileak dira: Udalekoak, kirol eta kultura esparruetakoak, ikastetxeetakoak, Etxeluze Gaztetxekoak, Txurrunuski aisialdi taldekoak, Herrio Natur Taldekoak, Harribil Dantza Taldekoak, Danbolin Musika Eskolakoak...

Edota Gaztetxeko, Saltxerak taldeko eta Esperientzia Eskolako ordezkariak, adibidez, gosari-tertulian batu ziren joan den martxoan, hezikidetzaren hizpide hartuta. Gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna ardatz, lan munduaz, belaunaldi ezberdinek jasotako heziketaz, festez, eta abarrez aritu ziren.



ORIOKO CURRICULUMA SORTZEN

Ikastetxeen ekarpena

Guztien lanari esker, joan den ikasturtean amaitu zituzten informazio txostenak eta irailan ikastetxeen esku utzi dituzte (Orioko Herri Ikastola eta Zaragueta Herri Eskola), Urdangarinek azaldu duenez, “irakasleek irakurri eta beraien ekarpenak egiteko”. Aurten go abendua izango dute horretarako epemuga eta “ondoren, prozesu parte-hartzailearekin jarraituz, besteak beste hitzaldiak, mahai-inguruak, kafe-tertuliak antolatuz eta material guztiari azken begirada emanik, egungo fasea amaituko da”. Orduan hasiko dira Orioko Curriculumuma idazten.

Proiektu berriak oraindik ez du ikasgeletan martxan jartzeko data zehatzik, baina dagoneko badakite Lehen eta Bigarren Hezkuntzan aplikatuko dutela, eta jardura eta ekin-tza berezien bitartez lantzeko asmoa dute.

URPA
autobusak

22, 28, 31, 55 eta 60
plazakoak

Autobus literadunak
Europar zehar ibiltzeko



Ubilluts auzoa, 55. poligonoa, 9.eraikina-4. · 20140 Andoain
Tel.: 943 305050 Faxa: 943 305060
www.autocaresurpa.com · info@autocaresurpa.com

UZZARRI
JATETXEA

janari
tradizionala



© 943 148 321 · Aizarnazabal
www.uzzarrijatetxea.com

MARITXU
JATETXEA

Eguneko menua · Karta · Taldeentzako menu bereziak
Era guztietako itsaskiak, etxeko haztegikoak



Euskadi Etorbidea, 13 / Trintxerpe · Pasai San Pedro (Gipuzkoa)
© 943 399 062 / 943 399224 · www.restaurantemaritxu.com

Juantxo
TABERNA



Ogitarteko
eta **pintxo**
bero eta hotzetan
espezializatua

Enbeltran kalea, 6 · 20003 DONOSTIA · 943 427 405

TXINGURA
TAILERRA, S.L.



ERAIKUNTZA METALIKOA ETA HERRERITZA

Egiburuberri industrialdea, 17 D
Errenteria (Gipuzkoa)
© 943 331 836 · Faxa: 943 552 388
txingura@txingura.com · www.txingura.com

Herriari lotutako jaia

ERRIA TXIKOTA. Herri arrantzale bateko esamoldea da, Orioko Curriculumean barneratzeko modukoa. Arrantzaleek itsasora joan aurretik txikota (itsasontzia kaira lotzen duen soka) askatzeko lehorra egiten duten oihua da, aurtengo Kilometroak jaia eskertu Euskal Herri osora zabaltzen ari dena.

Hori izan da, hain zuzen ere, aurtengo jaiaren helburuetako bat: urriaren 5ean jendea herrian hartzeaz gain Orioren nortasuna herriko mugez harago eramatea. Eta horrek isla izango du egunean bertan ere, Herri Ikastolako guneko eskaintza osoa herriko eragileek sortua izango delako.



Aurten bigarren aldiz egingo dute Erronka lehiaketa eta finala uretan izango da.

Ibilbidean zehar, gainera, herriko adineko pertsonak emandako informazioarekin eta argazki zaharrekin osatutako panelak jarriko dituzte, Gipuzkoako ikastolen aldeko jaira gerturatzen direnek ibilbide

osoa egin eta Oriori buruzko bitxikeriak ezagutu ditzaten.

Gaztetxoek ere izango dute zer egin, iaz Tolosan martxan jarritako *Erronka* abentura lehiaketa Orion ere egingo baitute. Izandako arrakasta medio, ikastolen aldeko jai guztietara zabaltu da lehiaketa, eta herriko gazteak dagoneko murgildu dira abenturan, ikasturte honetan herrian ospatutako Erria Txikota Astearren barruan probaren bat egiteko aukera izan zuten-eta. Ekintzaren ikusgarritasuna aprobeztatuz, zirkuituak dituen bost gunetako lautan jokatu dute lehia eta finala arratsaldean izango da autopista azpian, uretan.

Hala ere, herriari buruzko ezagutzak indartzeko asmoa ikasgeletan sartu da pixkanaka azken ikasturteetan. “Ikastolaren egitekoa, ikasle, guraso eta irakasleengana iristen laguntzea izan da, antolatutako ekintzen berri emanez eta parte-hartzea bultzatuz”, azaldu du Orioko Curriculumeko Ikastolako ordezkariak. Esaterako,

larunbat batean egindako ekintza ikastorduetan txertatu zuten azken ikasturtean: “Bi ikastetxeetako ikasleak eta irakasleak ekintza baten protagonistak izan ziren: herriko zutabe batzuk margotu zituzten, Oriori buruzko ezagutzak irudikatuz”. Autopista azpiko zutabe grisak kolore urdin, berde eta

horia dute ordutik, eta han daude baleak, herri inguruetako mendiak zein toponimiak hitzak.

Curriculumak ikasgeletan sartzean egitasmoa gauzatu egingo da, baina ez da amaituko, herriaren izaera eguneroko gertaerei lotuta egonda eguneraketak beharko dituelako. Horrela lortuko dute helburua: “Orioko ikasketak amaitzean, gazteek herriko tradizioetan, ohituretan, kontakizunetan, herri-abestietan, elkarbizitzan zein ingurumenarekin

zuzeneko elkarrekintzan elikatutako ezagutza izatea”. ■

“Ori, itsasertzean bizi den herria izanik, erriak, itsasoak, arrantzak, ontziolek, arraunak, baserriek... asko eman digute”

**Eli Urdangarin,
Orioko Ikastola**



Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago, handitzen, berritzen eta gizarte eta ingurumenarekin konprometituta.

www.goizper.com Tel. 943 786 000

GOIZPER
ZURE KIDEA POTENTZI
TRANSMISIÓKO OSAGAIETAN

Goizper
Ihinzadura
ZURE KIDEA POTENTZI
IHINZADURA ZEHATZA

MATABI IKK
OSATU

Goizper
Bioteknologia
NATURAN INSPIRATUA

INFORMÁTICA
OABE

Sutearo, aseguru soziala baserrietarako

Baserritarrak elkartu eta baserri edota etxebizitzetan ezbeharren bat gertatuz gero, denen ekarpenei esker konpontzen dituzte. Garai bateko baserritarren arteko ermandadetan oinarritutako ekimena da Sutearo, eta aseguru konpainiak ez bezala, ez dute etekin ekonomikorik bilatzen, soziala baizik.

| MARTIN VICIOSO |

BASERRITARREK elkartzeko beharra izan dute betidanik, egunerokoan sortu zitezkeen arazoek aurre egiteko. Ermandadetan antolatuta, bati suertatutako ezbeharrek konpontzen saiatzen ziren denen artean. Oinarri hori gaurkotu dute Sutearoko kideek, elkarlanean baserrien eta landa eremuko etxeen segurtasuna bermatze aldera. Ohiko aseguru etxeekin alderatzen dituzten arren, behin eta berriro azpimarratu dute euren ez dutela etekin ekonomikorik lortzeko helburuz egiten. Hau da, elkarteko bazkideek diru ekarpenak egiten dituzte, eta horiek bere osotasunean kalteak ordaintzeko erabiliko dira.

Suteak izan dira baserritarren kezka nagusietakoa, eta hasieran horiek bakarrik arduratzen zen Sutearo. Denborarekin, beste ezbehar batzuei ere erantzuna ematea erabaki zuten. Besteak beste, euriak, haizeak, kazkabarrak edo elurrak eragindako kalteei, uholdeei eta lapurretei. Asanbladetan erabakitzen dute bazkideek zein kasutan eman behar diren laguntzak, gaur egungo beharrak kontuan hartuz. Bestalde, erantzukizun sozialaren garrantzia azpimarratu dute. Baserrietan eta landa eremuetan bizi den jendearen segurtasuna dute xede, eta aseguru konpainiek errentagarritzat hartzen ez dituzten etxeak bazkidetzat hartu izan dituzte.

Bizkaian hasi ziren eta dagoeneko Araban eta Gipuzkoan ere bazkideak dituzte, 4.000 baino gehiago guztira. Geografikoki gertu dauden kideek ermandadeak osatu eta euren barne arauak ezarri dituzte. Printzipioz, baserrietara eta landa eremuko etxetara mugatzen ditu Sutearok bere bazkideak. Hala ere, salbuespen batzuk onartu ditu eta webgunean zehaztutako landa guneeetako pisuak sartu daitezke. Hiriguneko etxeak ere har ditzake barne, beti ere bazkideak aurretik landa eremuko etxebizitzaren bat aseguratu badu.

Bizkaian hasi ziren eta dagoeneko Araban eta Gipuzkoan ere bazkideak dituzte, 4.000 baino gehiago guztira.

JAVIER MEDIAVILLA EZQUIBELA



Marko juridiko egokiaren bila

Orain arte aurkitu duten zailtasun nagusia instituzionala da. Besterik ezean, Borondatzeako Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde gisa sailkatu dute, pentsio plangintzak eta antzekoak egiten dituztenekin batera, alegia. Behin-behineko erabakia izan zen, baina estatusa aldatu gabe dute oraindik. Azken urteetan, legediaren aldaketarekin batera, mota honetako erakundeei betebeharrak gogorragoak ezarri zaizkie, eta horiek betetzeko zailtasunengatik Sutearo bezalako elkarteak desageratzeko arriskuan daude. Ez dute uste mutualitateei egiten zaizkien eskakizun berberak jasotzea bidezkoa denik, esan bezala ez dituztelako etekin ekonomikoak bilatzen.

Gizarte ekonomia alternatiboetan oinarritutako elkarteek euren jarduerara trabarik gabe aurrera eramanez ahal izateko marko juridiko egokiaren beharrea daude oraindik ere, jakinik gero eta gehiago direla etekin soziala monetarioaren aurretik jartzen duten ekimenak. ■





DANI BLANCO

Mikel Zurbano



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Euro-guneari hauspoa

EUROPAKO BANKU ZENTRALEKO (EBZ) buru Mario Draghik irail hasieran iragarritako neurriek EBko krisia kudeatzeko orain arteko neurri ortodoxoekiko nola-baiteko bira iragartzen dute. Iragarpen horrek Europako ekonomiaren shock egoera onartzen du eta, bide batez, sei urteko krisi larriaren ostean Europar Batasunean (EB) orain arte indarrean egon den austeritate politika ortodoxoaren porrota egiaztatzen du. Izan ere, defizit zein zor publikoa kontrolatzeko helburuarekin murrizketek ekonomiaren izotzaldia ekarri dute eta kontu publikoen narriadura areagotu. Austeritatearen eragina EBko gunera –Alemaniara– atzeraldi moduan iritsi denean, deflazioaren mamuari aurre egiteko ekonomia politika zorrotza malgutzeko joera heldu da. Eszenatoki berrituaren lerro nagusiak Draghiren hitzek marrazten dituzte. Hitz horiek susperraldiaren iraunkortasuna astintzen dute eta EBn austeritatearen dogma nabarmentzera datorren kontsentzu politiko berri baten aurrekariak dira.

Abuztuan munduko finantza eragile nagusien aurrean Draghik aitortu zuen euro-guneak 2010etik gaurdaino hartutako aurrekontu politikak gainerako herrialde garatuena baino efikazia apalagoa erakutsi duela. Halaber, onartu zuen EBZ eta diru politikak ezin direla arazo guztien irtenbidea izan

Abuztuan munduko finantza eragile nagusien aurrean Draghik aitortu zuen euro-guneak 2010etik gaurdaino hartutako aurrekontu politikak gainerako herrialde garatuena baino efikazia apalagoa erakutsi duela. Halaber, onartu zuen EBZ eta diru politikak ezin direla arazo guztien irtenbidea izan. Horiek horrela, Draghik gaineratu zuen kontsolidazio fiskala helburu duen politika leundu beharko litzatekeela, hazkundera laguntzeko eta aurrekontu politika aktiboagoak eta

koordinatuak ezartzeko Europako ekonomiaren geldialdia saiheste aldera. Ondoren EBZk neurri zehatzak bideratu ditu, interes tasa ia zero izaterainoko jaitsiera eta zor pribatuaren erosketaren bidez likideziaren hedapenaren iragarpena. Horien eragina berehalakoa izan da, euroaren kanbio tasa jaitsi da, zor publiko periferikoaren interesa hondoratu da eta euriborrra ere beheratu, esate baterako. Neurri horiek laguntzeko, EBren Batzorde buru berriak, Juncker-ek, inbertsio publiko gisa datozen hiru urtetan 300.000 miloi euro bideratzeko prest azaldu da, orain arteko aurrekontuaren uzkurraldiaren amaiera ekarriko lukeena.

EBko ekonomia politikaren aldaketarako –xumea, dena esateko– zantzu berri horiek bi estrategia politikok izandako porroten ondorio dira. Hasteko, austeritate politikak lau urte eta gero izandako porrota dago –lehenago aipatu dudana–, zeinak aurreikusitako helburuak ez dituen bete eta populazioaren bizi baldintzen narriadura eta gizartearen pitzadura ikaragarria ekarri duen. Bigarrenez, krisiaren bestelako irtenbidea ekarriko omen zuen alternatiba sozialdemokrataren porrota dago. Zapaterok goiz bistaratu zuen eta berriki Frantziako Gobernuaren krisiak eta emandako erantzunak sozialismo klasikoaren ezina erakusten du. Alemaniako agente faktikoen inertiak ahulduta Europako eliteen kontsentzu berriaren oinarriak azaltzen ari dira dagoeneko eta horien edukiak egungo austeritate politikaren lerro nagusietan eta erreforma estrukturetan aurkitzen dira, baina, baita ere, epe laburreko hazkundera suspertzeko diru politika hedatzaileetan, kontsolidazio fiskalaren helburuak malgutzean, inbertsio pribatuari bideratutako laguntza gehigarrietan eta Europa mailako inbertsio publikoetarako planetan. Estrategia ekonomiko malguagoa duen EB eremuko kontsentzu berriak arlo politikoan duen ispilua Alemanian martxan dagoen kontserbadoreen eta sozialdemokraten arteko aliantza litzateke. ■





Aingeru Epaltza

IDAZLEA ♦



JOSU SANTESTEBAN

Ikusi ez zituenak

IRAILAREN 3AN, UPNko agintari batek baino gehiagok gogotik madarikatuko zuen 2014ko Espainiako Itzulia Nafarroara ekartzeko baten batek izan zuen burutazioa. Txirrindularien etorrerarekin, Nafarroako Erresumaren espainolasuna agerian jartzea baldin bazen xedea, arras bertzelako zerbaitek erakutsi ziguten telebista kamerek.

Bilduren deialdirik gabe izanzen zen ikurrinik Iruñerrian eta Sakanan. Bilduren deialdiak zuri-gorri-berdetu zituen bazterrak Aralarko igoera guztian. Espainiar esatarien isiltasunak musika paratu zion ikuskizunari.

Espainiako Itzuliak Euskal Herriko muga zeharkatzea mamu beltza izan da, historikoki, gure independentistendako. Garai berrien kontua egia izanzen da, norbait politika zentzuzkoa egiten ari baita ezker abertzalean. Betizuaren estrategiari zuzen jo eta adarrak hautsi judokarenak hartu dio, itxuraz, lekua: kontrarioaren oldarraren bulkada probestu, hura lurreratzeke. Batzuek amorragarri.

Kasu berdina izan gabe ere, horretaz oroitu nintzen lehengoan Leitza lagun bati adituta. Leitza-rrek, nonbait, inoiz baino bisitari kanpotar gehiago izan dute uda honetan, nabarmen gehiago, bertako ostatuen eta landetxeen pozgarri.

Nik ikusi nuen egunean zer pentsatua ematen zuten salan zeuden batzuen irri-karkailek; ni baino euskaldunagoak ziren, eta ni baino aise ere abertzaleagoak

Leitza, zoko eta bazter ikusgarriak izanik ere, aparte samar gelditu izan da beti zirkuitu turistikoetatik. Aurretik *8 apellidos vascos* filmean agertzeak du, nonbait, famatu. Martínez-Lázaroen pelikulak zer esana eman zuen joan den neguan. Espainiako zinemaren historia-ko lanik ikusienetariko bat bilakatu zen estreinatu eta

berehala, nahiz eta Estatuko iritzi-emaile eskuindar gehienek ez zuten, hasieran, begi onez ikusi. Gero, aunitzen ikusmoldea aldatu zen, filmaren kontura Euskal Herrian piztutako ika-mikaren berri izatean. Hemengo batzuei irakurrita, ematen zuen *8 apellidos vascos* gure kontrako plan makiaveliko baten atala zela. Ez dakit. Bazen pasarte deserosoren bat. Horrez landa, *Vaya semanita*ren edozein emanalditan irri gehiago egin izan dut pelikula honekin baino. Baina denak ez gara berdinak. Nik ikusi nuen egunean zer pentsatua ematen zuten salan zeuden batzuen irri-karkailek; ni baino euskaldunagoak ziren, eta ni baino aise ere abertzaleagoak.

8 apellidos vascos memelokeria bat zen. Memelokeria horrek eraman du jende andana Leitza ezagutzera, Nafarroako herri-rik euskaldun eta abertzaleenatariko bat. Leitza-rrak fin ibili baziren, pelikulan ikusi ez zituenak ikusiko zituen bere bisitaldian jende horrek guztiak. ■



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Bidaiariak

UDA HONETAN Iratxe Gutierrezen luma-pean Sinead O'Connorren ohorezko artikulua irakurri nuen. Ez nintzen beraz bakarra, irlandarraren ahotsaren xarmak eta indarrak liluratua zebilena. Bakarrik ez izateak sosegatu ninduen. Eta gaur, hemen nago, *I am here*, Dublineko hotel zahar bateko gelan *I'm Not Bossy, I'm The Boss* albuma entzuten: boza, musika, testuak. *She is the best(e)*.

Bidaiaz abiatzean nortasunez eta senez aldatzen gabilta. Ez gara exiliatuak, are gutxiago ihesean dabilizanak. Hiriko plazetan ausatu gaitezke eguzkitan, sorterriko traumak ahanztiz. Egoerak ankerra

dirudi horrela hotzean. Kontuan edukitzekoa da ordea, bai Irlandak, bai Euskal Herriak, bai Kataluniak, bai eta Eskoziak demagun, gerla ondoko bake apurra merezi dutela *Thank you for loving me* hauteman arau.

Aitormenaren ildo urratu dezadala: Sinead O'Connor handiak nire bizitzako urrats garrantzitsuenak bere soinuez azpatu zizkidan, Parisetik itzulera trenean *This is to mother you*, Mauletik Baionaratzean *Emma's song*, eta jada etxela egin berri dudala *Kisses like mine*. ■





Gorka Bereziartua Mitxelena

♦ ARGIAKO KAZETARIA

Bye Bye Barcelona

BAZTER GUZTIETAKO txokorik ederrena? Akaso hori pentsatu dute askok Kataluniako hiriburuaz, bazter guztietatik hurbiltzen ari baitzaizkie turistak azken urteotan. Guzti guztietatik. Ito-garri bihurtzeraino. Bizilagunen gainetik pasatzeraino. Imajina portaletik atera orduko hankapean hartzen zaituela argazki kameraz armatutako ejertzito batek. Helburua, bakarra: Sagrada Familia konkistatzea. Park Güell berenganatzea. Souvenir dendak arplatzea. Eta *Lonely Planet*eko *top place* guztietan posizioak hartzea.

Udan han egon bazara badakizu zer den; bestela, aski da YouTube-n sartu eta Eduardo Chibásek zuzendutako *Bye Bye Barcelona* dokumentala ikustea. Hiriak jasaten duen turismo basatiari buruzko ordubeteko filma da eta perspektibarekin kontatzen du gaur egungo desastrea. 1992ko Joko Olinpikoekin hasi zen lasterketa: hamarkada haren hasieran 1,7 milioi turista izatetik, 2013an 8 milioi baino gehiagora pasa da. Eta kafe bat jokatu nuke aurtentzako kopuru hori gainditu egingo duela Europa osoarentzat modako leku bihurtu den Bartzelonak. Baina hiria gainezka egiten hasi da, Barcelonetan uda honetan izan diren istiluek aurreratzen dute, ez dago prestatuta jendeketa horietarako. Klaru, zenbaiten patrikak bai, eta hor hasten dira eztabaidak. Krisi ekonomikoak aitzakia ona eman die turistak zukutzen dituzten enpresei, beraien negozioarekin lotutako edozein jardueraren bandera defendatzeko. Bartzelonako agintarien arropostua zera izan da, gutxi gorabehera: “Dirua dakar? Orduan aurrera”.

Aurrera, herritarrenak ziren kaleak turisten mesedetan galtzen –hain bartzelonarra den Ramblan, 10 pertsonatik 8 turistak dira gaur egun–; bertakoentzat ziren jatetxeak ixten, bisitan datozenen gustukoagoak diren *fast-food*ak zabaltzeko; hiriko inbertsio nagusiak kanpotarrentzat planifikatzen; eta, aurrera, ororen gainetik, espekulazio inbiliariora rekin, jendea bizi den etxeetatik joan dadila “animatzen” duten

Hiria gainezka egiten hasi da, Barcelonetan uda honetan izan diren istiluek aurreratzen dute, ez dago prestatuta jendeketa horietarako. Klaru, zenbaiten patrikak bai, eta hor hasten dira eztabaidak

hirigintza arauekin, *mobbing* kasuak ez aipatzearen, hotel eta ostatu berriak zabaltzea helburu.

Kontuak sustoa ematen du, jarduera ekonomiko “biguna” izan litekeen turismoaren aurpegi itsusiena erakusten duelako. Eta gain-esplotazio hori imitatzeko tentazioak antzematen dira paraje hauetan –Guggenheim efektuak eman zion abiatzeko tiroa fenomenoari eta geroztik hainbat kirol eta kultur ebentok elikatu dute–; beraz, gertakari katalan honi ere erreparatzea ez genuke debaldekoa. *Tourist, remember, you’re in the Basque Country* baino zerbait gehiago esaten hasteko ordua guri ere iritsiko zaigulako, akaso. ■



1 irakurri



2 hautatu



3 erabili



4 lagunei bidali

Joxerra Garzia

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Anakronia beltzak

GUTXITAN oheratuko zen pianoan Bach edo Schuberten pieza bat edo beste jo eta Goethe edo Rilkeren pasarte batzuk irakurri gabe. Biharamun goizean, jaiki eta lantokira joango zen puntual asko, eta han nagusiek agindutakoa txintik atera gabe beteko. Ezer berezirik ez kultura handiko pertsona batentzat, esango dit norbaitek. Eta arrazoi osoa luke, gure gizonaren lantokia Auschwitz ez balitz.

Kulturarik jasoena eta ankerkeriarik latzena berez uztar ezinak direlakoan egon gara luzaroan. Orain, XX. mendeko izugarrikerien ostean, badakigu ez dela ezinezkoa, elementia zirela horrelakoak nazien garaiko Alemanian.

Baieztapen hori du abiapuntutzat George Steinerren saiakera lazgarri eta ederrenetariko batek, euskaraz honelaxe ez bada honelatsu behar lukeenak: *Hizkuntza eta isiltasuna. Saiakera bat literatura, hizkuntza eta gizagabekeriaz*. Aspaldi irakurria nuen arren, lehen aldi hartan ez bezalako zirrara eragin dit bigarren txanda honetan, eta uste dut badakidala zergatik.

Abiapuntuko baieztapenak ezinbestean dakar honako galdera hau: ikusiak ikusi, esan ote daiteke kulturak gizaki hobeak bihurtzen gaituela? Galdera erretoriko bezain deseroso horrek, bistan da, kolokan jartzen du mendebaldean oro har eta Europan bereziki orain arte inork zalan-tzan jartzen ez duen axioma.

Steinerrek gordin dioen bezala, XX. mendeko izugarrikeriak (auschwitzak, gulagak, guantanamoak eta era guztietako ziega itsuak) ez dira inola ere inperioaren bazter urrunetan sortuak, inperioaren bihotz-bihotzeko parejeetan baizik. Sorleku bera dutela, alegia, goi mailakotzat jo ohi dugun kulturak eta gizateriak ezagutu dituen izugarrikeriarik basatienek.

Neure buruari agindua nion, aspaldi samarrik, ez nuela Hondarribiko alardea sekula gehiago plazan aipatuko, baina hedabideetan erakutsi, esan eta idatzi direnak ikusi, entzun eta irakurrita, iruditu zait betikoaren aldekoek argudio berri bat erabili dutela aurtan, betiko argudio argal ergelez gain.

Labur zurrean, honelatsu formula daiteke argudio niretzat berri hori: “Kultura handiko pertsonak gara gu, aizu, ez pentsa istilu bila dabilen jende ezjakin eta erronkorosoa garenik...”.

Ni prest nago hori (ere) sinesteko, baina iruditzen zait betikoaren aldekoen irakurgai kuttunen zerrendan ez dela George Steiner agertuko, beste-la ez baitzuten argudio hori erabiliko.

Aitortzen dut egunotan sarri egin dudala ahalegina, uztar ezinak diruditenak uztartuta irudikatzeke. Bach edo Schuberten musikaz eta Goethe edo Rilkeren literaturaz gozatzeko gauza zen pertsona Auschwitzten “lanean” irudikatzea zen Steinerrek proposatzen zigan ariketa. Hondarribiko alardearen kasuan, atzekoz aurrera egin beharra dago irudimen ariketa.

Saiatu saiatu naiz, aurtan ere betiko plastiko beltzen atzetik betikoa aldarrikatzeko aitzakian irainka aritu diren horiek etxean irudikatzen: gitarra hartu eta Mikel Laboa edo Ruper Ordorikaren kantuak kantatzen, edota Atxaga edo Sarrionandiaren pasarteak irakurtzen, esaterako.

Ez dut lortu, plastiko beltz horrek den-dena irentsi eta beltzean beltz bihurtzen baitu. Alferrik ari dira, ordea, bai plastikoa-ren atzekoak eta bai haiei, oraindik ere!, babesa eskaintzen dieten buruzahagi anakronikoak: ezarri nahi diguten

erdi-aro ilun hau ez da betirako izango, uste duten baino lehenago argituko baitu arrazoiaren eta gizatasunaren egunak. ■



Antton Olariaga




www.argia.com/multimedia



Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitoluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa, euskaraz.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

ASIER LEATXE IBAÑEZ D'OPAKOA
SOINU INGENIARIA

Musikarekiko pasioak gidatutako ibilbidea

Asier Leatxe Londresen bizi da azken hamar urtean, baina, horren aurretik, AEBetan bizi izan da, San Frantziskon, New Yorken eta Chicagon. Soinu ingeniaria da, eta musikaria halabeharrez. Ibilbide oparoa egin du, hango eta hemengo musikariekin lan eginez. Euskal musikariekin ere aritu da lanean, soinu ingeniari eta ekoizle artistiko gisa. Makala edota Axular DJrekin egindakoa, horren lekuko.

Testua eta argazkiak:

| MYRIAM GARZIA |

ASPALDITIK ezagutzen dut Asier Leatxe (Arrasate, 1968), nerabezarotik. Londresko Candem Road kaleko bere etxean (Amy Winehouse zenaren etxetik gertu) hartu nau, egun batzutarako, beti eskuzabal, beti eman-kor. Bertan egon naizen bitartean, Londresko hainbat musikari pasatu dira bere etxetik. Ohikoa da. Etxean duen estudioan grabatzen ditu hurbiltzen zaizkion musikarien lanak. Ez da ekoizle arrunta, bera ere musikaria denez, ekoizle artistikoa izan ohi da sarritan. Irizpide eta esperientzia handiko ekoizlea dela esan daiteke.

Egongelan, hainbat musika tresna barreiatuta: bateria, baxua, gitarrak, perkusio tresnak, mikroak, anplifikagailuak, konpresoreak, ordenagailuak, milaka kable. Abuztuan, Erresuma Batuko Soundway Records diskoe-txe ezagunak My Panda Shall Fly musika elektronikoa lantzen duen taldearen diskoa argitaratu zuen, Asierrek ekoitzia. Kritikak aipamen berezia egin dio Suren Seneviratne musikariarekin egindako ekoizpen lanagatik: “zehaztasun handiko lana” dela zioen.

Egongelako izkina batean dagoen mahaian eseri gara, bere bizitzari errepasoa egiteko. Arrasaten duela 30 urte okupatutako gazte-txeaz gogoratu da. “Han hasi nintzen lehenengo soinu grabaketak egiten, sotoan zegoen entseguetako lokalean eta jam sessionetan,

mikroekin esperimentatzen-eta. Horiek izan ziren nire lehenengo grabaketak, bitxiak ziren” diosku barrez. Orduko biniloetako kredituak jakin-minez begiratzen zituen, soinu ingeniaria zer ote zen jakin gabe. “Nik, egia esan, astronomoa izan nahi nuen (karkar), baina bizitzak beste bide batzuetatik eraman nau”, dio.



80ko hamarkadaren amaieran, Asierren aitak, Arrasateko Kooperatibako lankidea, AEBetara joateko aukera izan zuen, Kooperatibak bertan kokatutako bulegoa zuzentzera. Chicagorantz abiatu ziren Leatxe-tarrak, familia osoa, Asierrek 18 urte zituela.

Ingelesa ikasi eta gero, Filosofia eta Psikologia ikasketak egiten hasi zen Chicagoko Columbia unibertsitatean, baina bi urte geroago, soinuaren inguruko mintegietan parte hartzen hasi zen Columbia Collegean. “Erakargarria egiten zitzaidan musika ekoizteko mundu hori”. Ikasketak bukatuta, Chicago Track estudioan hasi zen lanean, baina handik gutxira, bere kabuz New Yorkera joateko erabakia hartu zuen, eta bertako Institut of Audio Reserch eskola aitzindarian hartu zituen eskolak. “Orain hainbat ikastetxe daude soinuaz ikasteko, baina garai haietan ez ziren hainbeste”.

1992an graduatu, eta New Yorkeko 440 estudioan hasi zen lanean. Estudio honetan



**Asier Leatxe eta
Suren Sebeviratne.**

hainbat saio eta kontzertu ekoitzi zituen. Tarte horretan John Fausti ekoizle ezaguna ezagutu zuen, bere aita ponteetako bat. Faustik gomendatuta, Electric Lady Studio ezagunean, Jimmy Hendrixek sortutako estudioan, hasi zen lanean. Horren ostean, New Yorkeko hainbat estudiotan aritu zen *freelance* ingeniari. New Yorken ere musika ikasketak egin zituen. Besteak beste, gitarra eta baxua jotzen ditu, “hartara, kristalaren alde bietan egoteko aukera dut” diosku.

90eko hamarkadaren bukaeran, New Yorketik San Frantziskora joan zen, eta, besteak beste, Tiny Telephone Recording estudioan jardun zuen. Musika elektronikoa lantzen duen X-Roads musika taldean ere aritu zen musikari, sintetizadoreak, samplerrak, pedalak eta roland-ak jotzen.

Aro analogikoak indarrean dirau

2004tik Londresen bizi da, eta *freelance* ingeniari gisa aritzen da bere etxeko estudioan, Next Door deiturikoan. Decca zinta analogikoaz aritzen da masterizazioan, gerora grabazioak digitalizatu egiten baditu ere. Mastering lanak egiten ditu batik bat, “baina edozer gauza graba dezaket estudio portatilean”. Estilo anitzak jorratu ditu ingeniari bezala, musika afrikarra, folka, rocka... baina batez ere musika elektronikoa eremuan nabarmendu da, soinu ingeniaria denez, teknologia bikain ezagutzen duenez.

Londresen hainbat musikarirekin lan egin du egun. Horietako bat Annabel Lee abeslaria (Ninja Tunes musika taldea) dugu. “Bere abestietako baten orkestrarako moldaketa egiten ari gara orain” azaldu dit Asierrek, partiturak eskuan. Orkestrazio lan honetan ere, Mikel Andonegi piano-jotzaile donostiarrak parte hartu du. Egun Singapurren, baina

denbora luzez Londresen bizi izan da Mikel Andonegi ere (M-ak, Four Brothers and a Ghost), eta harreman estua dute biek.

Suren Seneviratnerekin (My Panda Shall Fly musika elektronikoko taldea) batera egingako bi urteko lanak orain ikusi du argia Soundway Records diskoetxe ezagunaren eskutik. Tropical izeneko diskoa sortu du Surenek, eta Asierrek, diskoa ekoizteaz gain, esku-hartze zuzena izan du sorkuntzan. Musika elektronikoa egiterakoan, soinu ekoizpenak garrantzi handia du eta soinu ingeniariak disko honetan egindako lana goraiatu egin du kritika britainiarrak.

Suren Sebeviratne Sri Lankakoa da jatorriz, baina txikitatik bizi da Londresen. “Bera ikusentzunezko sortzailea da, baina musikari ekin dio orain. 32 abesti sortu eta hauen remixak ere egin ditugu elkarrekin”. Surenek sortutako demoekin egin dute lan sortzaileak eta ekoizleak, zenbait abesti aukeratu eta elkarrekin garatu dituzte. Paisaia eta une ikusezinak ekartzen ditu gogora Tropical diskoak. “Kontzeptu horren gainean egin dugu lan. Irudimenaren bidaia, toki urrunak, magikoak eta exotikoak iradokitzen dituen”. Suren 12 urte zituela heldu zen Londresera Sri Lankatik bere familiarekin, eta “bere haurtzaroko Sri Lankako etxeko irudietan, oroimen magiko horren inguruan murgiltzen da” azaldu du Leatxek.

Euskal Herrira itzuliz, “talentu handia dago Euskal Herrian, baina ez dut izan lan egiteko aukera handirik. Belako bezalako taldeak gauza interesanteak egiten ari dira”. Tropical biniloaren masterizazioa egin du Garate estudioan. “Kaki Arkarazorekin lan egitea ohore handia izan da niretzat, aspalditik ezagutzen bainuen bere ibilbidea, gazte garaietatik”. ■



Zinema, jatorrizko hizkuntzan

FILMA jatorrizko hizkuntzan ikustea aberasgarriagoa al da? Erantzuna oso erraza da: jakina baietz. Aktorearen ahotsari interpretazio mailaren portzentaje oso handia dagokio. Adibide nabarmen bat aipatzearren, Colin Firth *The King's Speech* filmean; saiatu bi moduetan ikusten, ikaragarria da aldea. Filma osotasuna da, eta beste norbaiten ahotsak tartean sartzeak zeharo alda dezake jatorrizko sormen lana.

Espanian, 1941 urtean, lege bat ezarri zuten, zeinaren arabera pelikula guztiak bikoiztuta estreinatu behar ziren, komeni ez ziren elkarriketak zentsuratu ahal izateko. Geroztik bikoizketara ohitu da gizarte eta jatorrizko hizkuntzan ikustearen aurkako argudio ugari entzutera ohitu gara. Nire ustez, filma bikoiztuta ikustea, Rolling Stonesen kontzertu batera joan eta Mick Jaggerrek ezpainak mugitzen dituen bitartean, Bisbalek abesturiko bikoizketa bat entzuten aritzea bezala da.

Askotan erabiltzen den beste argudio bat honakoa dugu: gaztelaniaz bikoizketa arduradun bikainak dituztela. Ez zaie arrazoirik falta, baina hori da arazoa hain zuzen, bikoiztaileak direla, eta ez zine zuzendariak. Testua ezpainen mugimenduari itsasten saiatzen dira, eta ñabardura ugari gal daitezke bidean. Zuzendariak aktorearekin hamar saiakeraren ondorioz burutu duen lan gogorraren ostean eginiko lanaren fruitua. Jatorrizko hizkuntzan ikusiz gero, obrarekiko pertzepzioa askoz ere zuzenagoa izango da, igorlearen eta hartzailearen arteko bitartekariak saihestuko baititugu. Adibide oso argi batez ulertuko dugu. Demagun menperatzen duzun hizkuntza batean film bat estreinatzen dela –adibidez euskaraz–. Nola gustatuko litzaizuke ikustea? Menperatzen duzun jatorrizko hizkuntza horretan ala bikoiztua? Ziur nago %100ek jatorrizko hizkuntza aukeratuko lukeela. Eta, zergatik galdetuko banizue, emango zenituzketen argudioak, nik eman ditudan berberak izango liratekeela. “Ez dut jatorrizko hizkuntza hori menperatzen”, horretarako sortu zen azpiztitulazioa. Bikoizketarekin, hots-banda guztia aldatu behar da (musika, ahotsak, zaratak...). Azpiztituluekin aldiz, lerro idatzien bidez adierazten du aktoreak dioena, eta lan originalarekiko errespetua erabatekoa da. Ahalik eta osoen adierazten dute esaten den guztia, ahalik eta xehetasun gehienak kontuan hartuz. “Ni ez noa zinemara irakurtzera”, “Hitzei begiratu z gero, ezin ditut irudiak ikusi”. Hementxe azalarazten da benetakoa “arazoa”, alferkeria. Onartu ezazue, filmak



Colin Firth, *The King's Speech* filmean.

bikoiztuta ikustearen egoskorkeria horren arrazoi nagusia, nagitasun intelektuala da, pasibotasunaren gaixotasunak eragindako beste ondorio bat.


Alferkeria horren kontrako ertzean, herrialde ugari aurki ditzakegu –India esaterako– muga ekonomikoak direla eta, behartuak daude AEBetako filmak jatorrizko hizkuntzan ikusten. Bikoizketan aurrezte sarrerak ez garestitzeko modu bat da, eta hori dela-eta ingelesa nahiko ongi ezagutzen dute. Beste hizkuntza bat ikastearen prozesua, murgiltze kultural gisa ulertu beharko genuke.

Ahaztu ezin dugun beste elementu garrantzitsu bat, interneten erabilpen masiboa da, eta egunero irensten ditugun film eta telesailak. Geroz eta ikusle gehiago dira, jatorrizko herrialde jakin batetik datozkigun telesailak, igortzen diren erritmoan ikusi nahi dituztenak. Gazteak dira nagusiki eta jatorrizko hizkuntzaren defendatzaileen armadara batuz doaz pixkanaka. Hizkuntza aldetik prestatuago daude, aurre-rapen teknologikoekin batera hezi dira eta horrelako produktuak askoz gehiago eskatzen dituzte, oso ohituta baitaude egunero kontsumitzera.

Beldurra galtzea da gakoa, oso aberasgarria baita ikus-entzunezko produktuak jatorrizko hizkuntzan gozatzea. Munduko jende askorentzat, zinema ikusteko modu guztiz naturala da, urte luzetako ohiturak finkatua. Ikustear dago oraindik zinemaren etorkizunak norantz joko duen. Baina momentuz, eta utopikoa dirudien arren, ez al duzue uste, bi modalitate horien artean erabaki behar ez izatea eta momentu oro bi aukerak izatea izango litzatekeela bidezkoena? ■

Gaizka Izagirre





urriak 5

19:00

Antzoki Zaharra

Donostia

Ametz
Arzallus
Joxan
Goikoetxea

hues



Antolatzailea:

donostiakultura.com

Laguntzaileak:




AAM KULTUR
PROMOTORA
619421153



Henduen Literatura

Hezur gabeko hilak
Xabier Montoia.

Susa, 1999



Baina bizirik

GERRA ZIKINA existitu izanak gerra garbirik egon dela pentsatzera eraman gaitzakeen bezala, ausartzen gara esatera tamaina aldetik gerra diferenteak egon direla. Gerla Handia deitzen diogu, hartara, 1914-1918 artean eragin zuen txikizioari. Nahiz gerora gertatu diren handiagoak. Nahiz gerra bat sekula ezin daitekeen gerta txiki, ez behintzat bizi izan duenari. 14koa, ordea, handia izateaz gainera, ez zen inolaz ere arrotz izan euskaldunontzat; geratu zitzaigun bakarrik iparraldera. Armiamako lagunak ari dira, haatik, gogoratzen efemeridea. Astez aste argitaratu ziren *Eskualduna* eta *Euzkadi* agerkarietako testuak on-line jartzeaz batera, esaten digute: bizi izandakoen kronika eta oroitzapenen bitartez jaso zuela gure literaturak I. Mundu Gerla-ren testigantzarik fidelena. Kirikiño eta Batxiren kronikekin, adibidez, edota Jean Elizalderen *57a Gerlan*. Baina narrazio eta eleberriek ere hartu dutela gaia, XX. mendean, halaber XXI.ean. Bi mendeon arteko saltoan argitaratu zen, hain zuzen, *Hezur gabeko hilak*.

Xabier Montoiaren bigarren den eleberririk honetan –“beste ezusteko bat eman digu”, zioen Markos Zapiainek orduko hartan–, Jean Etxegoien eta David Mandel soldaduen guduketa garaiko gorabeherak kontatzen zaizkigu. Euskalduna bata, errusiarra bestea, frantses dira biak paperean, eta, garrantzitsuago, gerrako lehen lerroan. Noski, izugarriak

dira batailetakoak, sekula erori gabe futbol partida baten narrazioan. Izugarriak dira noski batailaren ondorengoak, “soinetik bereizi besoak, zango solteak, buru baten zatiño ezagutezinak”. Baina berdin dira hemen izugarriak, noiz ez diren areago, hurrengo batailara artekoak: Etxegoien eta Mandelen arteko solasak, maiteaz, iragan bizitzaz, gizajendeaz, gerraz, jendarteaz, etorkizun denaz. Ahaztu gabe laguntasunaz. Laguntasun gordin eta muturreko baten istorioa baita, azken batean, irakurle maite, *Hezur gabeko hilak*. Eta ez sobera abegikorra euskaldunekiko: esaterako, Piarres Landa elkartzen zaie-nean, saratarra, 57koa –Jean Elizalde bezala–. “Frantsesez ere ez dakien ezjakin hori?”, dio Etxegoien eskolatuak. “Bertze euskaldun alu bat! Ardi eta emazte hilen bortxatzaile gorrotagarria”.

Baina, oroz gain, basakeria handienaren erdian ere, bizitzaren aldeko kantu baten aurrean gaude. Edo gautza: “Berdina duk guztien lehia: une bat gehiago, bertzerik ez bada ere, bizitzen jarraitzea, handizki pairatu behar izan arren. Nehork ez dik nahi mundu satsu honen uztea!”. Rosario ez dakit sailduko iraultzaile hark esan zuenaz bestera, alegia: “Hobe okerturik baina bizirik ezen ez harro katabut baten barnean”. ■

Aritz
Galarraga



Zinemara urte osoan!

· JAN EDAN ENTZUN IKUSI ETA IKASI ·

Donostia - alde zaharra

www.afuegonegro.com



Hil orduko bizi

Arcada Social

Mauka musikagintza, 2013

Street punk jarrera

ARKADA SOCIAL Arrasateko (Gipuzkoa) street punk talde bat da. Gero eta ezagunagoa egiten ari da, eta gero eta zale gehiago ditu, egiten duena ederki egiten duelako. Taldeak eskarmentu handia du, 1997an sortu baitzen. Taldekideak, aurretik, Des-Kontrol, Jukebox, Cool Circus eta beste hainbat taldetan aritu ziren.

Hil orduko bizi lanaren aurretik, Arkada Social taldeak *Sin sufrimiento no hay gloria* (Brixton Records, 2003), *Para siempre* (autoekoizpena, 2006) eta *Beste istorio bat* (Mauka, 2012) CDak, eta *Zuzenean* DVDa (autoekoizpena, 2008) kaleratu ditu. Lan horiei erreparatuz gero taldeak bilakaera izan duela nabarmena da. Urteotan, entseguz entsegu eta emanaldiz emanaldi bere doinua ongi findu eta sendotu baitu.

Lan berrian soinu mardula, sendoa gauzatu dute. Gitarrak dira nagusi, eta gitarren doinuen gainean, Hodeiren ahots urratua eta gainerako taldekideek egiten dituzten koruak nabarmentzen dira. Kantuak indartsuak eta zuzenak dira, apaindura handirik gabe moldatuak, baina ongi landuak.

Arkada Socialek street punk edo Oi! doinuak jotzen ditu, baina punk melodikoaren, punk rock azkarraren, ohiko punk alemanaren, eta Cicatriz, Vomito eta 80ko hamarkadako Euskal Herriko beste zenbait punk talderen ukituak antzeman daitezke haien kantuetan. Joera horiek guztiak ederki uztartzen dituzte, eta Arrasateko Oi! tradizioaren zaleak direla nabarmena da.

Hitzetan, taldekideek beren haserrea transmititzen dute. Kritika eta salaketa egiten dute. Besteak beste, Espainiako Estatua eta armada, polizia, kartzelak, ustelkeria eta gorbatadun lapurrak dituzte hizpide. Gordin mintzo dira. Bizitzaz –“Bizitzak estropezuak jartzen dizkizu bezperan, gaur argia ikusteko leizearen amaieran, horregatik bizitzari gogor eutsi” (*Hil orduko bizi*)–; laguntasunaz –“Igarotako denborak persona orori dagokion lekuan jartzen dio eta horregatik agur eta besarkada bat baina laban batekin” (*Agur lagun*); borrokatzeaz –“Ez egon besteek egingo dutenaren zain, ez egon besteek bidea hasteko zain, heldu da eguna, gaur da unea kaleak oldartzeko” (*Eguna argitu da*), “Gaizki



zaudenean lagun etorri nigana, nik emango dizut eta behar duzun indarra, piztu ezazu berriro bizitzaren garra, borrokatzea baita dagoen bide bakarra” (*Etorri nigana*)–; eta presoei eta iheslariei buruz –“Aurrea egin beharrean atzera goaz! Guk ere ez ditugu nahi argazkietan, etxean nahi ditugu” (*Ez gaude denok*)–.

Hodei Beitia (baxua eta ahotsa), Julio Hernandez (bateria eta ahotsak), Brian de Inda (gitarra) eta Mikel Arriaran (gitarra eta ahotsak) dira Arkada Social taldeko kideak. Lana osatzeko zereginetan, haiekin batera aritu dira Haritz Harreguy (soinu teknikaria), Juan Hidalgo (masterizazioa), Iagoba Domingo (diseinua), Javier Bergasa (azaleko ilustrazioa) eta Josu Txintxurreta (argazkia), eta denen artean oso lan txukuna egin dute. Grabazioa eta ekoizpena ederki eginak daude, eta CDaren aurkezpena ikusgarria da.


Street punk doinuak maite dituztenek atsegin handiz entzungo dute Arkada Social taldearen *Hil orduko bizi* diskoa. ■

Joxi Ubeda



Hitz gezidunak

Gaia: Lapurdiko herriak



Kike Amonarrizen umorea

Harreman hautsia

Egunero bezala, bulego-ko langileak kafe makinaren inguruan bildu dira goizeko 11k aldera. Kafea hartu eta



bakoitza bere lanpostura
abiatu denean, Arantzak
hauxe galdetu dio Aneri:

- Ane! Zer gertatzen zaio
Ainhoari? Lehen lagun
minak zineten eta gaur ez
zaitu agurtu ere egin!
– Zeharo haserre dago
nirekin.
– Zer dela eta?
– Joan den astean hautsi
egin nuelako bere senarra-
rekin!



Soluzioa

	A	L	S	H	
E	Z	P	L	E	T
	T	I	R	A	N
	K	O	N	U	B
Z	G	I	H	A	R
	B	N	E	G	U
F	U	G	A	U	N
	R	A	L	Y	K
H	U	R	O	A	S
	F	I	N	A	T
		Z	A	R	A
		Z	U	R	A



LA FUNDICION

Ikusleen txanda

DATOZEN HILABETEOTAKO lehen ostegunetan tailer berezi hau antolatzea “gure aretoko ikusleen artetik atera da” diosku Luque Taguak, La Fundicionekeo kideak. “Normalean ikuskizuna eta gero, ohikoa dugu basoerdi bat eskaintzea ikusleei, sortzailearen eta publikoaren arteko topaketa bideratzeko edo, besterik gabe, ikusitakoaren gainean gure artean mintzatzeko. Ikusleek gustuko dute hitz egitea, eta horretarako ez dago arte eszenikoetan profesionala edo aditua izan beharrik. Askotan harritu gaitu ikusleek duten ahalmena”.

Hitzordu hori nolabait arautu eta hileko lehen ostegunetan biltzea da ikusleen tailerraren asmoa. Sarrera doakoa eta librea izango da, eta David Barbero kazetari eta arte eszenikoen zalea izango da gidaria, ohikoa La Fundicionekeo ikusleen artean. “Mintzagaiak ez du La Fundicionekeo erakusten duen egitarauaren ingurukoa izan beharrik. Beste nonbait ikusitakoa ere ekar daiteke gure artera” zehaztu du Luquek.

Datorren urriaren 2an izango du tailerrak lehen hitzordua. Bertan, *Algo valioso se agota* dantza piezaren inguruan hitz egingo dute Olatz de Andresek, Bilboko Muelle 3 dantza

Ikusleen tailerra. Non:
Bilboko La Fundicion aretoa.
Noiz: urriaren 2an, azaroaren 6an eta abenduaren 4an, arratsaldeko 20:00etatik aurrera.

eskolako kide, dantzari eta koreografoak, eta Pablo Isbertek, Bartzelonako El Conde de Torrefieleko antzerki taldeko dramaturgoak. Urriaren 21ean hasiko den BAD jaialdian aurkeztuko da *Algo valioso se agota*. Luquek dioenez, “testuaren mundutik datorren antzerkigile honek dantzan eta gorputzean nola eragiten duen” jakin nahi dute.

Pedro Barea, *El Correo* egunkariko antzerki kritikaria ere gonbidatuko dute lehen hitzordura, informazio orokorreko egunkarietan antzerkiak edo dantza garaikideak nolako tratamendua duten azaldu dezan.

Gonbidatuak 10 minutu inguruko aurkezpena egingo dute eta gero ikusleen txanda helduko da. “Publikoaren partaidetza bultzatu nahi dugu. Ikusi dutenaz, gustuko dutenaz, nahiko luketenaz hitz egin dezatela, ikuspegi guztiak bildu nahi baitugu” nabarmendu du Taguak.

“Kulturak geruza asko ditu eta hainbat eragile daude nor bere ertzetik lanean. Izan daitezke dantzariak, aktoreak, dramaturgoak, ekoizleak, kudeatzaileak, komunikazio arduradunak... denek bat egiten dute eszenan” esplikatu digu La Fundicionekeo kideak. “Egitura horizontala osatu nahi dugu guztiekin, eta espazio honetara publikoa erakarri, eroso senti dadila eta hitz egiteko aukera izan dezala. Kultura aisialdia den heinean, gustuko duzun zerbaitez hitz egiteko aukera eman nahi diogu publiko orokorriari, zabaldutako tarte honetan”, dio Luquek. Hitzaldi dilbugaltiboak dira finean.

Sorkuntza garaikideak duen izaera berritzailea eta gaztea, eta beronek dituen ertzak eta geruzak izango dituzte mintzagai, beraz, La Fundicionen. Dramaturgia berriak, gorputza eta honen poetikak, kritikaren funtzioa, publikoaren rola edo musikak eta argiztapenak sorkuntza garaikidean duten zerikusia izan daitezke adibide batzuk. ■

**Myriam
Garzia**



Izerditzea mesedegarria da?

BERO SAPAK eta zirimiri freskagarririk nahasita ekarri dizkigun uda honetan puri-purian egon den kontu batekin nator ARGIAko orrialde hpmetara. Gehiegi izerditzea –teknikoki hiperhidrosia esaten zaio– gauza aski arrunta da uda partean, baina telebistan agertzen diren produktu kosmetiko ugarien eslogan behin eta berriz errepikatua izateaz gain, pertsona askorentzat arazo eta endredo sortzaile ere bihurtzen da sarritan.

Aspaldi samarretik ezagutzen dugu zenbait animalia espezieetan feromonek botatzen dituzten usain bereziak bitarteko gertatzen den erakarpen sexuala, eta dokumentalak medio gauza onartutzat hartzen dugu. Baina azken urteotan, gure gizarteak gero eta baztertuago dauzkala gisa horretako usain bortitzak, gizarte “usaingabetu” egin dela. Garai batean erakarpen sexualaren paradigma nagusia izan zitezkeen perfumeek ere sotiltasunaren aldeko aukera egin dute azken urteotan.

Argi dago, nolanahi, beroarekin batera gorputzeko atal jakin batzuek (galtzarbeek, oinek, eskuek eta age-rian dauden gainerako gorputz-atalek) atsekabe ugari ematen digutela izerdia dela eta. Izan ere, izerditzea itxura txarrarekin lotzen da, ez dago ongi ikusia.

Ez da txarra osasunerako, baina...

Ikuspegi hori alde batera utzi eta beste alderdi bat jorratu nahi nuke, orde: izerditzea txarra al da osasunerako? Hona erantzuna: ezta inola ere. Izerditzea giza gorputzak tenperatura erregulatze duen sistema garrantzitsuenetakoa bat da. Hainbat milioi izerdi-guruin dauz-



kagu, gorputz osoan banatuta, inguruarekiko tenperatura-trukean parte hartzen dutenak elektrolito ugari kanporatuz. Termometroa 30 °C-tik gora igotzen denean –eta uda honetan sarritan gertatu da–, izerdi gehiago egiten da, nabarmen bihurtuz gainera. Hortxe hasten dira arazoak.

Gehiegizko transpirazioaz kezaketen direnak gorputz-atal ondo mugatuetan, oinetan eta galtzarbeetan bereziki, dauzkate arazoak. Leku horietan, izerdi-guruin ugari daude, bi eratakoak: ekrinoak eta apokrinoak. Aurrenekoak gorputz osoan modu uniformearen banatzen dira, baina guruin apokrinoak gorputzeko bi atal horietan, bularrean eta perineoan baino ez daude. Perineoko guruinek, hain zuzen, garapen sexualarekin batera jartzen dira martxan, eta jariatzen duten izerdia oso kontzentratua da, bakterioek des-

konposatzen dutenean usain berezia botatzen duena.

Zer egin?

Emozioek, janari minek, aspirinek, urduritasunak, oinazeak eta beste hainbat arrazoik nabarmen gehitzen dute izerdi jariora. Zer egin daiteke kasu horietan? Logikak agintzen duen bezala, galdutako ura edari bidez berreskuratu behar da, beste ezeren aurretik. Merkatuan hain ugari diren transpirazioaren kontrako produktu lokalak –desodoranteak, alegia– baliagarri gertatuko dira kasu askotan, gehiegizko izerdigalera horiek kontrolatzen laguntzeko. Azkenik, hiperhidrosi kasurik larrienak konpontzeko kirurgia lokala erabili beharko da. Edozein kasutan, dermatologoari egindako bisitak zalantza guztiak uxatuko dizkizu. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza^{interaktiboa}

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Ardoen goma

SRI LANKAN eta Indian esnearen arbolaren (*Brosimum utile*) latexa esnetzat jotzen da. Artirinezko ogia, artoa, berarekin zopak eginda jateko ohi-tura omen dute nekazari-ek. Ahosabaian pixka bat helduagatik, gozoa eta atsegina omen da. Dastatu beharko.

Jan ez, baina ezpaine-tan eta mihi muturrean pasa bai. Bada, hemen ere, bi ezpain xokoen artean darabilgun beste latex bat. Erruz, gainera; gero eta gehiago ikusten dut: erretzeko zigarro

papera. Erregaiaren azal, hatz artean bildu, alde bateko ertzean duen Arabiako goma mihian pasa eta, errematea emateko, kiribildu eta papera paperari itsastea arte ederra da. Paper ziztrin batekin egindako artelanak ikusten dira. Zigarrrogintzan bezala porrugintzan, txirrietan.

Arabiako goma du papertxoaren aiekak. Arabiakoa? Garai batean Arabian sortzen zen, baita



Acacia generoko zuhaitza.

Asia mendebaldean ere. Zigarreta paperean biltzen den eran, duela 5.000 urte inguru, Egipton, momiak biltzeko erabiltzen zuten. Gaur egun Afrika iparraldeko Sahara basamortua eta hegoaldeko sabanaren artean, Senegaldik Eritrea arterainoko Sahel eskualde tzarrean ekoizten da; nagusiki, %70, Sudanen. Estimatuena Sudaneko Kordofangoa eta Senegalgo Ferlokoa dira.

Goma hori *Acacia* generoko zuhaitzei kentzen zaie, *Acacia senegal* eta *Acacia seyal*. Azaleko zauriak egin azalean eta, zauria ixteko isuriko duen jaria-kina bildu. Zauritik atera orduko zihatu egingo da eta gogortu. Zuhaitz bakoitzak libra erdi bat inguru eman dezake, sasoiko. Mundu osoan, gero eta goma eske handiagoa dagoenez, beste espezie eta generoetako zuhaitzetatik ere gero eta gehiago ateratzen da.

Gutxien uste duzunean ahoratuko duzu goma:

txigoma edo mastekatzeko goman, izotzetan, litxarrerian, botiketan, coca-colan... Adierazten duten tokietan E-414 kodearekin azalduko da. Ez dizute berehalakoan esango, baina ardoetan erruz darabilte: argitzeko, egonkortzeko, orekatzeko, mingotsa kentzeko eta gorputza emateko. Garai bateko ardozopetakoa ez bezala... ■



400.000



Txilarra da Eskoziako landare zabalduena. Bertako kulturaren ikur ezagunenetakoa da. Hari lotutako makina bat ipuin, istorio eta elezahar badute. Eguneroko bizimoduan ere ikaragarri lagundu die. Guk teilatuan teila, haiek txilarra. Guk lastairan lastoa, haiek txi-

llarra. Eta horma, lokarri, iltze, erratz, aitzur, eskuare, arrastelu eta abar izan dute txilarra. Baita gonetarako koloregaia ere: horia, urrea, ubela, grisa, berdea eta brontzea marrazteko.

Izan ere, badute gaia: 400.000 hektarea baino gehiago txilardi da Eskozian. Euskal Herriaren bostetik bat. Berriz ere izango dira bere buruaren jabe! ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

Atallu Industrialdea 26 Usurbil 20170 Gipuzkoa
Tel/Fax.: 943 36 11 14 • alkartasuna@usurbil.com
www.alkartasunausurbil.com

Tasmaniako aborijena bost libratan



Azken lau tasmaniarrek 1850eko hamarkadan. Eskuinean eserita dagoena Truganini da, hiltzen azkena (1876). XIX. mendearen hasieran 5.000 aborijen inguru bizi ziren uhartean, baina gobernu britainiarrek baimendutako giza ehizaren ondoren desagertu egin ziren.

OZEANIA, 1642. Abel Tasman Jansen nabigatzaile holandarrak uharte bat aurkitu zuen Australiako kostaldetik 240 kilometrorra. Bertako biztanleak azal iluneko eta ile kizkurreko gizon-emakume txiki eta argalak ziren (gizonezkoek 1,60 m neurtzen zuten batez beste, eta emakumeek 1,48). Ehiza eta bilketa zituzten bizibide. Hasieran Van Diemenen Lurra esan zioten irlari, Anthony Van Diemen garai hartako Ekialdeko Indietako Holandar Konpainiaren gobernadore orokorraren omenez. Baina 1855etik aurrera aurkitzailearen izena jarri zioten: Tasmania.

Holandarren ondoren, frantsesak eta britainiarrak iritsi ziren uhartera, eta bertakoak esklabo egiten hasi ziren. 1803an britainiarrek presondegi kolonia bat ezarri zuten bertan eta, kondenatuez gain, lur eremuak lortzeko eskrupulurik ez zuten kolonoak iristen hasi ziren. Kolonoek ez zituzten aborijenek ehiza eremuak errespetatzen eta liskarrak berehala piztu ziren armada britainiarraren babesa zuten iritsi berrien eta beren burua defendatzeko ezer gutxi zuten tasmaniarren artean. Europarrek egindako hilketa, bortxaketa, bahiketa eta bestelako gehiegikeriek ez zuten zigorrik. Eta, hala ere, tasmaniarrek beren burua defendatzen

ahalegindu ziren, suzko armen kontra harriek eta lantzek inolako aukerarik izan ez arren.

1826an, *Colonial Times and Tasmanian Advertiser* astekariak autodefentsa erabili zuen aitzakiatzat kolonoen jarrera zuzitzeko: “Ez gaude hemen lan filantropikoa egiteko. Autodefentsa naturaren lehen legea da. Gobernuak bertakoak kanporatzen ez badi-tu, basapiztiak bailiran ehizatuko ditugu”.

Gobernu britainiarrak tasmaniarrek beste uharte batera aldatzea pentsatu zuen, baina azkenean aldizkariaren iradokizunak irtenbide azkarragoa ekarriko zuela erabaki zuen. Hala, 1828an aborijenek ehiza baimendu zuten. Baimendu eta akuilatu, ehizaki bakoitzak ordainsaria baitzuen: helduak bost libratan ordaintzen ziren; haurrak, bitan. 1803an 5.000 aborijen inguru bizi ziren irlan; 1830ean 200 bat geratzen ziren.

1860an azken gizonezko tasmaniarra hil zen. Royal Society of Tasmania elkarteak George Stokelrek gorpua larrutzeko agindua eman zuen, oroigarri gisa larruarekin zorro bat egiteko. Azken emakume tasmaniarra, Truganini, 1876an hil zen. Genozidioa burutua zen. ■



Arrastoak

Bizkotxoaren hastapen gogorrak

XVI. MENDEAN, bizkotxoak marinelen elikagai nagusieta-koa ziren itsas ibilaldi luzeetan. Opil txiki biribilak ziren, galleta modukoak, gari irinez eginak. Bi aldiz egosten zituzten, bidaian zehar hartzitu ez zitezten. Eta egosaldi bikoitz horretatik datorkie izena, latinez *biscoctus* hitzek “bitan egosia” esan nahi baitute

Hortaz, duela 500 urteko bizkotxo haiek ez zuten zerikusirik gure gaurko bizkotxo harroekin. Antz handiagoa zuten frantsesezko edo ingelesezko *biscuitekin*. Baina ez ziren gozoak. Arrain gazituarekin, urdaiarekin, lekaleekin edo arrozarekin batera jan ohi zituzten, edo, besterik ezean, olio pixka bat botatzen zioten.

Bizkotxoak bustitzeko ohitura hasieratik zabaldu zen. Baina egun jalekeria hutsez egiten duguna, beharragatik egiten zuten orduan. Egunak aurrera joan ahala, opil haiek gogortu egiten ziren, janezin bihurtu arte. Horregatik uretan edo ardotan busti ohi zituzten, hortzeriaren mesedetan. ■



CAKE FACTORY

XVI. mendeko bizkotxoek ez zuten zerikusirik egungo opil harro gozoekin.

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

Musikaz blai hasiko da atzera kontaketa

Argia Egunerako gutxi geratzen da eta jadanik motorrak berotzen hasi gara. Independentzia ikusmiran mahai-inguru musikatuari segida emango dio ostiralean (irailak 26) Lasarte-Orian antolatu dugun musika kontzertuak. Dena prest dago argiazaleok irailaren 27an egun ederraz goza dezagun Usurbilen.

| URKO APAOLAZA AVILA |

DANI BLANCO



Ezkerrean: Bego Zuza ARGIAKO lehendakaria eta Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkatea hitzarmena sinatzeko orduan. Irailaren 26ko kontzertua izango da akordioaren barruko lehen ekintza. Eskuinean: Emanaldiaren kartela.

IRAILAREN 27A GERTU DA. Usurbilen Argia Eguna ospatuko dugu egun horretan eta festari azkeneko ukituak ematen gabiltza ARGIAKO komunitatea (42. orrialdeko koadroan aurkituko duzu Usurbilen muntatutako azpiegituren

eta eskainiko ditugun zerbitzu eta festa ereduaren berri). Motorrak berotzeko hainbat ekitaldi egingo ditugu aurreko egunetan; aktualitatearen analisiak eta musikak dute protagonismoa horietan.

Babeslea: Euskaltel



‘Herrien Europa’ mapa, Argia Egunean salgai

KARTOGRAFIA ofizialean erakutsi izan digutena baino anitzagoa da Herrien Europa. Hala, Europa beste begirada batez ulertzeko mapa euskaraturik eskainiko dizu lehen aldiz ARGIAk.

Mikael Bodlore-Penlaez kartografo bretoiak sortu eta marraztu du, Eurominority.eu webgunerako. Bertan, estatua duten eta estaturik ez duten Europa-ko nazioak irudikatzen dira, baita onartze bidean diren nazioak ere.

Mapa Argia Egunean Usurbilen jarriko ditugun mahaietan eskuratu dezakezu 15 euroan, eta Argia.com/denda helbidean ere eska dezakezu.



Hala, Usurbilgo Sutegi kultur etxean *Independentzia ikusmiran. Zein estrategia behar du Euskal Herriak?* mahai-inguru musikatua antolatu dugu asteazkenean, irailaren 24an arratsaldeko 19:00etan –hurrengo aleetan xehetasun osoz eskainiko dizkizugu mahai-inguruaren edukiak–. Bertan arituko dira Asier Blas politologo eta irakaslea eta Iñaki Antigüedad hidrogeologia katedradun eta Amaiurko parlamentari ohia. Carles Belda soinu-jole katalan-euskaldunak musikaz bustiko ditu zuzenean mahaikideen hausnarketak.

Lurraldetasuna, desobedientzia, bake prozesuaren ataka, herrialde independentisten arteko konparaketa... Afera horiez eta haien inguruko estrategiez mintzatuko zaizkigu Usurbilen.

Kontzertua Lasarte-Orian, ARGIAren alde

Argia Egunaren aperitifarekin jarraituz, bezperan (irailaren 26an) emanaldi paregabea izango da ARGIAren alde Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxeko auditoriumean. Hona-ko musika talde eta kantariak hartuko dute parte: Mikel Urdangarin, Anari, Pier Paul Berzaitz, Petti, Estitxu Pinatxo, Alboka Taldea, Bide Ertzean eta Jon Basaguren. Musikari horien, A&M kultur promotoraren eta Udalenen prestutasun osoari esker izango da posible

luxuzko kontzertua; Lasarteko Riojanos erretegiaren laguntza ere jasoko dugu horretarako. Kontzertua gaueko 22:00etan hasiko da eta sarrerak 15 euroan daude salgai (salmenta puntuan Argia.com-en). Horren osagarri, 20:00etan, Kukai Dantza Konpainiak emanaldia eskainiko du Lasarten.



Laguntzailea

Olarrondo
JATETXEA

*Toki aparta eta
inguru atsegina*

Muna Lurra kalea, 5 • 20170 Usurbil • Erreserbak: ☎ 943 360 376 / 626 686 036 • info@olarrondojatetxea.com • www.olarrondojatetxea.com

Usurbilgo festa guneetan aurkituko duzuna

JENDE ORORENTZAT egokitu-tako azpiegitura eta zerbitzuak eskainiko ditugu irailaren 27an Argia Egunean. Hornikuntza lanak eta baliabideen kudeaketa tokian tokiko eragile sozial eta ekonomikoekin elkarlanean egin dira, kontsumo jasangarri eta arduratsua sustatu aldera. Hala, bi festa gune handi egongo dira Usurbilen:

1) Frontoia eta dema plaza

Bertan egingo dira ekitaldi nagusi eta jendetsuenak, hala nola arraltsa-deko bertso saioa eta iluntzeko kontzertuak.

Hara gerturatzen denak oholtza nagusia aurkituko du, baita ARGIA-ren historia eta barrenak ezagutzeko prestatutako erakusketa ere. Garai bateko ale zaharrak kontsultagai egongo dira eta artxibo historikoko argazkiak ikusgai. ARGIA-ren produktuak erosi eta harpide egiteko mahaia ere izango da eta estilo anitzeko kamisetak egongo dira salgai, Iosu Serigrafiak-en laguntzarekin eginak.

Eguerdi partean Argiazaleon Topaketa egingo dugu frontoian.



Parte-hartzen dutenek hamaiketako goxoa izango dute zain, Usurbilgo Alkartasuna nezakarien kooperatibak utzitako jakiekin prestatua: sagar zuku naturala, Aralarko gazta, almendrak, sagar dultzea eta txokolatezko pinportadun galleta ekologikoak.

Gosea edo egarria asebetetzeko aukera ere izango dugu dema plazako txosnan. Bertako edari ekologikoak eskainiko dira, Basorlegiren edalontzi berrerabilgarrietan, eta mahaiak egongo dira pintxoak eta ogitartekoak jateko. Txosnan urik ez da salduko; Kutxa Ekoguneak utzitako pitxarretan, denona den iturriko ur freskoa edan ahal izango dugu ohiko moduan.

2) Askatasuna plaza

Gune honetan haurrentzako jolasak eta eskulanak izango dira goizean zehar eta Txirri, Mirri eta Txiribiton pasilazoen bisita jasoko dute txikiak.

Bestalde, bertan egingo da tailer ekologista, adin guztietako pertsonentzat. *Nendo Dango*-ak (hazi eta buztinezko bolatxoak) egingo dira txikitutako inguruak baso-berritzeko.

Askatasuna plazako estalpean 200 bazkaltiarrentzako mahaiak egongo dira. Lur Lan Baserritar Elkartearen eskutik, Euskal Herriko eta garaiko jaki jasangarriekin baretuko ditugu tripa-zorriak. Etxetik bazkaria ekarri dutenentzat ere tokia izango da.

Bolatoki inguruan, berriz, joko zirikatzaileak egingo dira bazkalostean, Euskal Herriko I. Nortasun Agiri Inposatuen Jaurtiketa, besteak beste.

Egun osoko festan sor litezkeen hondakinak Usurbilgo atez ateko bulegoarekin koordinatuta bilduko dira.

Usurbila joateko autobus eta tren lineak daude; autoz doanak kiroldegira ondoan aparkatu dezake.

ARGIAK hitzarmena sinatu du Lasarte-Oriako Udalarekin, *Tratu on bat* egitasmoaren baitan. Udalak herriko enpresa esanguratsuekin abiarazitako hitzarmenari esker, bere azpiegiturak baldintza berezietan eskaintzen ditu, bertako ekonomia eta herri bizitza aktibatuzko. ARGIAren

kontzertu hau esker ona adierazteko modua ere bada, egoitza nagusia bertan dugun Lasarte-Oriako herriari. ■

argia.com Egunko xehetasun guztien azalpenak *Argiaren Barrenak* blogean.



Laguntzailea



Zubiaurrenea, 5 behea

USURBIL

☎ 943 37 10 42



Josu Landa



INFORMATIKARIA

Kobazuloetakoa iragan urruna denean

BEHINOLAKO 1980ko hamarkada hastapeanean ARGIAN ibili ginenok satorren edo saguzarren antzera ibili ote ginen susmoa daukat, gotorturik, isolaturik, erdi-itsu, kobazuloetan bizi bagina legez. Ezinbestean hala behar zuen, orduko euskaldun gehien-gehienek pentsatzen baitzuten euskara hutsezko prentsak ez zuela merezi, elebiduna deiturako prentsa zela etorkizuna. Kobazuloetan bezala bizi ginen, beraz, kafea edo mokadua hartzera kalera irteten ginen bakoitzean alferrik ari ginela zioten ahotsak nonahi entzuten genituen eta.

Handik gutxira Argia Eguna antolatzen hasi ginenean, kobazuloetatik ateratzen hasi ginela esan liteke, edo hala izan zedin saioa

hasi ginen jendearen esanak zuzenean entzutera, aski urduri gutako batzuk.

Labur aldera, 1990a nahi nuke gogora ekarri, besteak beste Argia Egunez eman-dako bultzadari esker *Euskaldunon Egunkaria* abiatu zeneko urtea. Eztabaida luze bezain katramilatsua izan genuen orduan, ea egunkaria izanda ARGIArekin jarraitzea merezi ote zuen. Ika-mika haren erresoluzioaren nondik norakoa begien bistakoa da, esku artean duzue frogia. Ez dut uste gaur egun askok kuestionatuko dutenik duela ia hogeita bost urte hartutako erabaki haren zuzena. Beharrik, hementxe dirau ARGIAK, euskal prentsak garai batean ametsetan ere usteko ez zuen aniztasun panorama oporaren parte.

Inon gutxi usaintzen diren gaiak eta planteamenduak irakur daitezke ARGIAN egun. Eta asko da hori, baina bada besterik: astekariaren enpresa egitura erlatiboki txikiari esker, aspalditxotik kobazulo itxura izateari utzi zion Lasarte-Oriako egoitzatik –prentsa ekarpenez gain– jendar-tearen eta bere egituren antolatze horizontalago baterako aukera dago, eta aukera hori ederki baliatzen ari da oraingo lan taldea. Uste dut ez garela gutxi talde horretatik iristen zaizkigun ekarpen eta gogoetak arretaz jarraitzen ditugunak, gizon deituak izan edo emakume deituak izan. Eredu berri eta iraultzaileen premia inoiz baino gorriagoa dugunean, zer pentsatuaz gain, poza eta esperantza ematen dute horrelako tematzeek. Ea Usurbilen jendeak zer dioen. ■

Inon gutxi usaintzen diren gaiak eta planteamenduak irakur daitezke ARGIAN egun. Eta asko da hori, baina bada besterik: astekariaren enpresa egitura erlatiboki txikiari esker (...) jendartearen eta bere egituren antolatze horizontalago baterako aukera dago

egin bederen. Ordura arte izan genituen sostengu bakan baina egoskor eta ezin ordainduzkoak –Beasain, Elgoibar, Deustu, Iruñea ditu gogoan nire oroimen kamutsak– sendotzeko eta biderkatzeko ahalegina izan zen. Urtean behin kalera ateratzen

Laguntzailea

Gela jauziak

www.kukai.info

kukai

Irailak
26
Larunbata

20:00etan
Okendo plaza
Lasarte-Oria

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

guztiona

SARE4
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIAren urte osoko harpidetza
(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 12 € hilean
Iparralde Euskal Herrian 15 € hilean

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (24 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOPAREA
HEMENDI

Biarrizko kaleetan euskaraz astebetetz

ESKOLETATIK KANPO ERE, nahi dute euskara biarriztarrek. Hala, ondoko leloa aukeratu dute aurtengorako: *Bihar'hitx egin euskaraz*. Euskara ikasia eta erabilia izan dadin astebeteko egitarau mardula antolatu dute. Irailaren 22an hasi ziren eta 28an bukatuko dute *Mintza lasai* astea. Hirugarren aldiz administrazioek eta elkarteek bat egin dute euskara bultzatzeko eta 70 ekitaldi antolatu dituzte. 25 elkarte ari dira lanean, eta 100 laguntzaile.

Denetarik ekitaldiak dira, olgetarakoak, gogoetarakoak eta heziketarakoak. Esate baterako dagoene-

ko sukaldaritza ikastaroa eta ardo dastaketa eskaini dituzte, baita *Elkarteak eta euskara* ikastaroa ere. Hilaren 26a, Hizkuntzen topaketa eguna izango da: *Babel saibestu* erakusketa, Biarritzen hitz egiten diren hainbat hizkuntzako lehen hitzak irakasteko saioa, pilota partida bertsolari kontalaria han dela, eta ondoren, hizkuntzen zintzur bustitzea. Irailaren 27an bisita gidatua, Mintzaplaza, kantu poteoa eta kabaret afaria izango dituzte. Astea amaitzeko, 28an, Familien festa egingo dute.



Informazio gehiago nahi izanez gero jo webgunera: www.mintzalasai.euskara-biarritz.eu.

Washingtonen euskara irakaslea behar dute

IKASTURTEA hasteko garaia da eta munduan zeharreko Euskal Etxe gehienak prest dira eskolak emateko. NABOk (Ipar Ameriketako Euskal Elkarteak) adierazi duenez, Seattle-en (Washington) Euskal Etxea eta euskara ikasi nahi dutenak badituzte, baina irakaslerik ez dute aurkitzen. Aldiz, Amerikako Estatu Batuetan eta Kanadan arituko diren hamalau irakasle baieztatu ditu.

San Franciscon bi arituko dira, Denverren beste bi, Homedale-en (Idaho) bat, Mountain Home-n (Idaho) beste bat eta Idahoko Boisen lau. Bostonen irakasle bat izango dute eta Montrealen (Kanada) hiru. 2014-2015 ikasturtean 150 ikasle inguru arituko dira euskara ikasten Ipar Amerikako Euskal Etxeetan.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Katastrofismo ekonomikoa eta independentzia

ESKOZIAKO HERRITARREK erabaki ahal izan dute eta Erresuma Batuari lotuta jarraitzea bozkatu dute. Madrilek kontsulta eragozteko mehatxua egin arren, Kataluniaren erabakia ere noizbait iritsiko da, baita Euskal Herriarena ere. Gobernuen, nazioarteko erakundeen, banku eta enpresa handien eta euren terminal mediatikoen jarrera ikusita, ondorio batzuk atera litezke bai Eskozia eta bai Kataluniaren kasuentzat. Ondorio berak balioko luke Euskal Herriarentzat.

Hain zuzen, gobernuek, NDF gisako erakundeek, konpainia handiek eta euren hedabideek independentziaren kontra erabilitako argudioa izan da katastrofe ekonomiko bat gertatuko dela. Artileria astuna jaurti dute, manipulatzeko lotsarik gabe, herritarren sabeletan eta eguneroko bizitzan eragina izango duela esateko, independentziaren kontra bozkatu zezaten. Argudio katastrofistok bota dituzte: independentzia lortuz gero herrialdea isolatuta geratuko da; ekonomiak ezin- go luke iraun; banku eta enpresa handiek herrialdea utziko dute; bizi-kalitate okerragoa izango dute; pen-

tsioak ezin izango dira mantendu; Europar Batasunak (EB) ez ditu beste estatu batetik bereizitako estatu berriak onartuko; "batuta indartsuago, toleranteago eta irudimen gehiagokoak izango gara bananduta baino" (*The Economist*-en); eta abar. Baina kontraesan asko daude. Hala, Eskoziaren kasuan adibidez, EBk herrialde honen aberastasuna galdu nahi izango luke klubetik kanpo utzita? Arrantza erreserben %20, balizko energia berriztagarrien %25, eta petrolioaren %60 daukate eskoziarrek.

Egoera honek guztiak erakusten duena da, funtsean, gobernu, erakunde, enpresa eta hedabide horiek beldurra diotela demokraziari. Ez dago ezer samurrago eta demokratikoagorik herritarrei beren etorkizunaz erabakitzen uztea baino. Katastrofismo ekonomiko eta sozialik gabe. Manipulazio eta mehatxurik gabe. Askatasun osoz.

Juan Mari Arregi



TEKNOLOGIA BERRIETAKO HIZKERA

Azpeitiar gazteek euskalkiari zukua ateratzen diote

Lagunartean, gero eta gehiago komunikatzen gara idatziz teknologia berriei esker. Garbiñe Bereziartua azpeitiarrak, bere herriko 15-16 urteko ikasleekin elkartu, eta teknologien bidez erabiltzen duten hizkera aztertu du. Emozioak adierazteko baliabide ugari erabiltzen dituztela ondorioztatu du, euskalkia izateak asko laguntzen duela horretan, eta oraingoz, erregistro informal horrek ez daukala eraginik testu formalak idazterakoan.

Testua eta argazkia:

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

“ZERTARAKO idatzi duzu *epaaaaa!!!!* horrela, letra bera hainbeste errepikatuta?”, “*epa* bakarrik jartzen badiozu lehor geratzen delako”, erantzun du gazteak. Hizkiak eta puntuazio ikurak asko errepikatzea da teknologia bidezko elkarriketen ezaugarrietako bat. Horrela ondorioztatu du Garbiñe Bereziartuak, Azpeitiko gazteekin egin duen lanean.

Pedagogiako doktoretza tesian *Ingurune eskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo* gaia landu du. EHUKo Dream ikerketa taldearen laguntza izan du: “Hizkuntzekin lotutako zerbait egingo nuela argi neukan”. Jasone Cenoz tutoreak eman zizkion arrastoak: “Gaia nahiko berria eta ikerketak egiten hasi gabea da”. Soziolinguistika Klusterraren Hausnartu sariketan bigarren saria irabazi du bere lanak. Ikerketa egiteko gazteek idatzitako testuak aztertu ditu, euren inkestak pasa dizkie eta eztabaida taldeak ere egin ditu tesia garatu ahal izateko.

Erregistro informala

Gazteek ez dute inolako arazorik testu informalak eta formalak bereizteko. Hori da tesiaren ondorio nagusietakoa. Sarri teknologia berriek hizkuntzaren kalitatea kalte dezaketela esan izan da, eta beldur hori normala iruditzen zaio Garbiñe Bereziartuari: “Beldurrak neurri batean sanoak dira, inporta zaiguna-



Bereziartuak azpeitiar gazteak zortedunak direla uste du: “Adibidez, ‘tipo horta’ bezalako espresioak euskaraz garatzen dira. Gazteek badaukate aukera eta inguruak oraindik bultzatzen ditu horrelako espresioak euskaraz bilatzera”.

ren seinale. Baina ezezagunari beldurra da”. Bere ustez ikuspegia aldatu behar da: “Hizkuntza bizirik dagoen heinean, aldatzen joan behar da. Garai berrietara moldatzen joan behar du; horrek mantentzen du bizirik. Gaur egun euskara jatortzat daukaguna ere, ziurrenik gure aiton-amonentzako erdarakadaz jositako *euskañola* izango da”.

Gazte azpeitiarrek, beraz, ez dituzte teknologietan erabiltzen dituzten baliabideak testu formaletan sartzen: “Nik ez dut esaten era-

gingo ez duenik, baina horretarako denbora tarte handiagoa eta ikerketa gehiago behar da”. Idazkuntza akatsen arazoak zeintzuk diren jakitea ez du hain erraz ikusten: “Ortografian eragin dezake, hizkuntzaren estiloan eta hiztegian ere agian, baina lehen ere egiten ziren akatsak”. Akats horiek neurri berean egiten ote diren eta zelako akatsak diren aztertu beharko litzateke. “Euskalkiaren eragina, adibidez, lehenago ere bazegoen testu formaletan. Orain horrelako akatsak ikusiko

Gaztelania eta telebista

GAZTEEK gehienbat euskaraz hitz egiten badute ere, gaztelaniazko espresioak gero eta gehiago tartekatzen dituztela ohartu da Garbiñe Bereziartua. Batez ere telebistaren eragina dela ikusi du: “Esaten zuten telebistaz entzundako espresio batzuk erabiltzen zituztela, *estás coladita por no sé quién* eta. Hori esateko, gurean *txora-txora eginda bago* edo *babi dayola* oso naturalak dira”.

Azpeitian, kaleko eta etxeko hizkuntza gehienetan euskara da eta euskararen erabilera bultzatzen duten faktore asko daude. Hori horrela izanda, telebistak gaztelaniaren erabilera duen eragina begi-bistan geratzen dela ondorioztatu du Bereziartuak: “Beste egoera soziolinguistikoetan pixka bat ezkutuan geratzen den faktorea da telebista, garrantzi handiagoa ematen zaiolako etxekoari, kalekoari... Hemen horiek alde edukita, zer faktore gehiago dauden ikusten dugu”. Gazteek egunean telebistaren aurrean ordu asko egiten dutela dio pedagogoak, eta ez dutela ETB1 ikusten, ez delako erakargarria eurentzat: “Gauza bera gertatuko da euskarak hain osasun ona ez daukan herrietan. Testuinguru soziolinguistikoa edozein izanda ere, kultura kontsumoa bera da”.

bagenitu zeren eragina izango litza-teke, euskalkia idatziz erabiltzearen eragina ala euskalkia ahoz erabiltzearena, besterik gabe?”.

Azpeitian ateratako ondorioak joera baten zantzuak eman ditzake, baina Bereziartuak argi du ezin dela orokortu, eta ikerketa gehiago egin beharko lirakeela: “Konturatzen bagara hau ortografiari ikaragarri eragiten ari zaiola, egin ditzagun ikerketak eta hartu ditzagun neurriak. Hori orain ezin da esan; kalte egiten duenik, ezta ez duenik egiten ere. Hori esateko aztertu egin behar da”.



Azpeitian, euskararen erabilera bultzatzen duten faktore asko daude. Horrela, telebistak gaztelaniaren erabilera duen eragina agerian geratzen da.

Euskararen eta euskalkiaren indarra

Ahozko erabilera antzera, gazteen idatzizko komunikazioan ere euskara da nagusi; euskalkia. “Hipotesian ez nuen planteatu ere egin, baina euskalkiak daukan garrantzira heldu naiz puntu batean baino gehiagotan”. Zentzu horretan azpeitiar gazteak zortedunak direla uste du Bereziartuak: “Adibidez, ‘tipo horta’ bezalako esamoldeak euskaraz garatzen dira. Gazteek badaukate aukera eta inguruak oraindik bultzatzen ditu horrelako esakerak euskaraz bilatzera”.

Bereziartuaren ustez, euskalkiak eskolaz kanpoko jardunean askatasuna ematen die gazteei: “Batua eskolarekin lotzen dute, eta eskolaz kanpo, euskalkiak lagundu egiten die, legerik gabe, askatasunez, hizkuntza aldaera propioa sortzen”. Idazkera horretan bi gauza nahasten direla uste du: “Batetik gazte hizkera dago; gazteek beren gazte izaera horretan beti nahi dute beste hizkera bat eta beste lexiko bat erabiltzea; eta bestetik, teknologietako hizkera. Batzuetan ez da

erraza bereiztea: zergatik egiten dute horrela, gazteak direlako edo teknologien bidez idazten dabiltzalako? Ni ez naiz hain gaztea, eta teknologiak erabiltzerakoan estrategia horiek erabiltzen ditut. *Zer moduz* esateko *Zmz* askotan erabiltzen dut, adibidez”.

Zortez jabetzea

Euskalkiak lagunduta, egoera informetarako erregistroa daukate Azpeitian. “Herri askotan ez dago aukera hori, eta Azpeitian askotan ez gara konturatzen”. Euskararen aldeko atxikimendu aktiboaren falta sumatzen du pedagogo azpeitiarrak: “Jabetu beharko ginatke zortea dela eta dagokigun erantzukizuna hartu nahi duenarentzako hor dagoela”. Arnasgune askotako gaitza dela azaldu du Bereziartuak. Kontzientzia horretan eragiteko, hain justu, euskara elkarrekin sortu berri dute Azpeitian. ■



“Batua eskolarekin lotzen dute, eta eskolaz kanpo, euskalkiak lagundu egiten die, legerik gabe, askatasunez, hizkuntza aldaera propioa sortzen”



Galesko herritarrak ere astindu ditu Eskoziak

Bihar Eskoziarik gabe Ingalaterraren aldamenean zer egingo duten hasi dira beren buruei galdezka Galeseko jende asko. Eskoziako erreferendumean baiezkoaren aldeko kanpaina egin duten abertzale galestarrek baliatu dute abagunea burujabetza berriro agenda politikoan sartu eta gaiotan beti uzkur agertzen diren herritarren eragiteko.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

Galestarrak ezetzaren alde egon dira Eskoziako erreferendumean: herritarren %21 zeuden eskoziarrek baiezkoa ematearen alde, %64 kontra eta gainerakoak zalantzan. Gales ez da Katalunia, dudarik gabe, ez Euskal Herria ere. Eskoziaren aldean hizkuntza propioa indartsu mantendu duen arren, aldarrikapen politikoetan oso atzetik doaz. Baina Eskoziako traganarruak hemen ere astindu ditu bazterrak.

Herritarren iritzia neurtzen duten erakundeek —estatuarena den Your Gov, Cardiffeko unibertsitatea...— erakutsi dute maiatzetik hona ugaritu egin direla Galesen bai Eskoziak eta bai Galeseko independentzia eskura dezaten alde daudenak. %10 ingurura mugatu izan den independentismoaren aldeko jarrera irailean %17raino handitu da.

Abertzale galestarrak pozik daude hilabeteotan ikusiarekin. *The Guardian*ek elkarrizketatu duen Angharad Tomos idazleak parte hartu du Eskoziako kanpaina. “Zoragarria izan da. Emakume taldeekin egon naiz, hitz egin dut gazte jendearekin, eztabaidak hor burutsu eta sortzaileak izan dira. Zerbait handia ari da gertatzen (...) Galesen denbora asko beharko da, 50 urteak paseak ditut baina agian independentzia ikusiko dut”.

Tomosek ezagutzen ditu Galesen burujabetasunaren aurkako argudioak: herrialde ahulegia dela bakarrik moldatzeko, Europarako txikiegia, Ingalaterrarekin nahastuegia dagoela ekonomian bezala azpiegiturretan eta jendeak ez daukala independentzia goserik. “Baina pobreak gara ez baliabide naturalik ezaz baizik Westminsterrek agintzen duelako gure gain eta gure kontra beti. Jende askok janari bankuetara jo behar izaten du, ez nuen sekula usteko horretaraino iritsiko ginenik. Hainbesteko langabezia dago, ezen gazte jendea etsi eta alde egiten ari den”.

Autogobernuaren eta burujabetzaren kontuak Galeseko herritarren solasetaraino eramanez dituzte Eskoziakoak eta bereziki eragin Plaid Cymru alderdi nazionalistan. Honek independentzia etzidamurako atzeratuta baldin bazeukan bere idatzietan, fite kendu behar izan dizkie hautsak bere estrategiei.

Plaid Cymruko lehendakari Leanne Woodek parte hartu du Eskozian baiezkoaren aldeko kanpaina. Kazetariari aitortu die harrituta itzuli dela bidaiatik. Alde batekin, hunkituta han aurkitu duen eztabaida mailarekin. Mendebalde osoan herritarrek ihes egin diote-nean politikari, Eskozian erreferendumaz informatutako eta iritzi eman nahi zuten herritarrak aurkitu

The Telegraph and Argus egunkariaren argazkian orgatxoan jarririk dagoen andrea-ren alde banatan Nicola Sturgeon Eskoziako lehen ministro ordea (gorriz) eta Leanne Wood Plaid Cymru Galesko alderdiko buruzagia (urdinez) Eskozian baiezkoaren aldeko agerraldi batean. Woodek esana du harrituta geratu zela Eskoziako jendartearen aurkitu zuen ezagutza eta eztabaida mailarekin: “Sekula ez nuen horrelakorik ikusi. Kanpainan jendearekin hizketan aipatzen zen parte hartzeak %80a gaindituko zuela eta hori oso kitzikagarria da. Zeren eta Erresuma Batuko beste leku guztietan jendea aldentzen ari da politikatik. Aldiz, Adrianoren Hesiaz [Erromatarrek Eskoziako piktoen erasoak eragozteko eraiki zutena] haratago jendea benetan konprometituta dago eta pentsaketan ari dira zer nolako etorkizuna nahi duten”. Irudi txiki- kian Galesetik Eskoziako baietza sustatzeko zabaldutako propagandaren ale bat.

dituela, taxizaleak bezala ostatueta-ko zerbitzariak.

Baina Eskoziako eztabaidaren osagaiekin ere zoratzen etxeratu da Wood. Alegia, hautua erabakitze-ko garaian herritarrek ez zerabiltzatela independentziarekin zein moneta eduki beharko zuten edo Europar Batasunak zer leku egingo dion bezalako kontuak hainbeste, eta bai etxebizitzaren zergak, zerbitzu sozia- lak eta abar.

“*Radical Independence* kanpainarekin parte hartu nuen mitin batean portuko langileak mintzo ziren lan- gileen eskubideez eta soldata duinez eta enpleguaz. Ohartuko zara West- minsterreko parlamentuan aspal- dian ez dela horrelakorik aipatzen”. Leanne Woodek bere burua beti aurkeztu du sozialista eta errepubli- kano. 2004an Galeseko legebiltza- rretan Elizabeth II erreginaz ari zela “Mrs. Windsor” deitzeagatik salatutako kanpora bidali zuten.

641 gaztelurekin morroi

Bi herrialdeen arteko kutsatzeaz *New York Times*entzako galdezka (“*As Scots Weigh Independence, Wales Takes Note*”) ibili den Katrin Benn- hold kazetariari Gerald Holtham ekonomialari galestarrak zehaztu dio alde nagusia: “Gure ekonomian laurden bateko zuloa egiten dugu”. Hau da, Galeseko gobernuak



30.000 milioi libra gastatzen ditu urtean eta 17.000 baino gehiago jasotzen ez zergatan. Urruntxo dabilatzala Eskozian independentistek harrotasunez haizatu duten argudiotik: Europak daukan petrolioaren %60 gure eremuan dago.

Egia esan, Gales bai zegoen XX. mende hasieran antzeko argudioa erabiltzeko moduan, Britainia Handia hain boteretsu egiten zuen siderurgia hein batean hemengo ikatzak berotzen zuelako. Duela justu mende bat, 1913an, eduki zuen ikazkintzak bere urte oparoena: 5 milioi tona atera zizkieten lurrari 233.000 meatzari galestarrek. 233.000 enplegu asko lirakeke gaur ere: hiru milioi biztanle dauzka Galesek. Baina heldu zen 1929ko

krisi handia eta gainbehera hasi. 1980ko hamarkadan Thatcherrek errematea emateko.

Horregatik dio Peter Florence, Galesko *Hay* literatur jardunaldien arduradunak: “Ehun urte beranduegi heldu gara. Eskoziarra banintz baiezko botoa emango nuen, baina hemen argi eta garbi ezin dugu independente izatea ordaindu”. Aldiz, kazetariari Mr. Price izeneko enpresa-gizon nazionalista batek esan dio: “Justu alderantziz da, Gales pobrea da independentea ez delako. Baina ez zaigu horretarako eguna iritsi oraindik. Galesek lehenbizi ikasi behar du nazio izaten”.

Konkistatutako herrialdea da Gales, armada ingelesak 1282an

menderatu zuen. Eskoziak, berriz, beti aldarrikatu dezake bere parlamentuak duela hiru mende bozkatu zuela, behartuta izanik ere, Ingalaterrarekin elkartzea. Honen alderantziz, Galesek duela zazpi mende eta erdi galdu zituen lege propioak, eskola, eliza eta Ingalaterragandik berezi lezakeen oro. *Union Jack* bandera famatuak Eskoziaren koloreak baditu, Galesen dragoiaren usainik ere ez.

“Ingelesen lehenbiziko kolonia geu gara”, diote abertzaleek. Kolonietan gertatzen den moduan, azpiegiturak hemen ere metropoliari begira antolatuta daude, autopista, tren eta errepede nagusiek Galesko eskualde bakoitza Ingalaterrari lotzen diote mendebaldetik ekialdera zeharkatuz, ez daude iparretik hegora antolatuta.


Galesko gazteluek liluratzen dituzte turistak. Menpekotasunaren lekuko dira, hain zuzen, Cardiffeko unibertsitatean irakasten duen Richard Wyn Jonesen hitzetan: “641 gaztelu dauzka Galesek, Europan okupazio militar gogorrena jasan duen nazioa izango gara. Orain gure burmuinak askatzeko bidea egin beharra daukagu. Behar bada mende honetan, edo gure belaunaldian, independente izango gara. Prest egon behar dugu”.

Menderakuntzak erabatekoa zirudien: 1979an erreferendumean galestarrek ezetz esan zioten autonomiari. Eskoziarrek eskuratutakoa, 1997an, Galesek ere baietz esan zuen. Orain berriro mugiaraziko ote du Eskoziako lokomotorrak? ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona



DANI BLANCO

Gatazkaren usteltzea eta paktismo berria

ESPAINIAKO Auzitegi Nazionala beste 28 gazte epaitzen ari da joan den astelehenetik aurrera. Segikoak izatea leporatzen die eta, beraz, erakunde terroristako kide izatea, 2007an Espainiako Auzitegi Gorenak Jarrai, Haika eta Segi ezker abertzaleko gazte erakundeak terroristatzat jo zituelako. Gazte hauek Segikoak diren hala ez erabaki beharko du, beraz, Auzitegi Nazionalak eta alde horretatik aurrekari ona dute: ekainean Auzitegi Nazionalako beste epaimahai batek akusazio bera zuten 40 gazte absolbitu zituen honako argudioekin: ez zen frogarik Segikoak zirela esateko; aurkeztutako frogak inkomunikazioan eta tortura salaketapean lortu ziren eta, beraz, ez ziren baliagarriak; atxilo-aldian balizko torturak saihesteko neurriak ez zirela jarri adierazten zen eta gazteen jardura politiko independentista legezkoa dela.

Ildo berean jarraituta, gazte hauen auzia berdintsua da: salaketa bera, inkomunikazioa eta tortura salaketak. Epaiaren emaitzak, beraz, absoluzioa beharko lukeela agintzen du zentzu judizialak. Hala ote?

Inork ez daki, Auzitegi Nazionalan gaur zuri dena bihar beltza baita. Gertuko beste adibide bat: uztailen bertan auzitegi berak *herriko tabernen* auzian emandako zigor gogorra: HB, EH eta Batasunaren bueltan izandako jardura politikoagatik 20 laguni ia 100 urteko kartzela zigorra jarri zien eta 103 herriko tabernen ondasunak konfiskatzeko agindu zuen. ETAkoak ziren denak. Epaimahiko hiru epaileetako bat, Clara Bayarri, ez zegoen ados eta boto partikularra eman zuen, guztien-

tzako absoluzioa eskatuz. Bere argudioak: haien jarduna politikoa zen eta Konstituzioak babestutakoa; inork ez ditu izendatu HB, EH eta Batasuna erakunde terroristar moduan (hauen ilegalizazioa bide administratibotik egin zen, ez penaletik); ez dago frogarik esateko ETAkoak direla.

AURRETIK ere Egunkaria eta Udalbitza auzietan dozenaka pertsona epaitu ziren eta absoluzioa eman zuen Auzitegi Nazionalak: ez ziren ETAkoak eta ez ziren honen agintuetara ari. Baina Jarrai, Haika eta Segi bai. Eta lehenago zigortutako Amnistiaren Aldeko Batzordeetakoak ere bai, eta Eginetako zuzendaritza eta Xakikoak eta... Batzuk bai, besteak ez, Audentzia Nazionalako misterioa dirudi, baina denborak ematen duen ikuspegiarekin gero eta gar-

Nor atara daiteke mesedetua? Paktismoa berria. Ibarretxeren erabaki eskubidea ezinezkoa bada, negoziia dezagun Urkulluren Kontzertu Politikoa

biago ikusten da “dena da ETA” doktrinaren bultzada politikoaren indarra. Misterio horren arabera, Espainiako Justizia 2014ko uztailen ohartu da 1979tik aurrera jardunean aritu ziren HBko kideak terrorista zirela. Eta zigortutako 20ak bai eta beste milaka ez?

Keinukarien justizia da Auzitegi Nazionalakoa, orain bai-orain ez, eta Espainiak, gainera, horretan oinarritzen du bere zuzenbide estatuen funtsa, justizia bermea, bultzada politikoa balego dena zigorra litzatekeela argudiatuz.

Perspektiba historikoak, alabaina, bakoitza bere lekuan uzten du. Lehenengo fase batean, Trantsizioaren ondorengo 20 urteetan Estatuak pentsatu zuen Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua deitu zena berez amaituko zela, baina ez zenez erori, XX. mende amaieran bigarren faseari ekin zion, horretarako “dena da ETA” doktrina aktibatuz, berau eraginkorra izateko behar ziren lege aldaketak eginez eta, batez ere, behar zen bultzada politikoa emanaz.


Egoera mundiala zen Estatuarentzat: ezker abertzalea zokortzeaz gain, euskal abertzaletasun osoa blokeatzen zuen eta, gainera, Espainian oso errentagarria zen Gobernuan ari zen alderdiarentzat. Ezker abertzaleak ere ez zuen asmatu fase horren aurrean, edo ez oso berandu arte behintzat. Eta asmatu duenean, Estatuak hirugarren faseari ekin dio: arazoaren usteltze fasea. Ondorioak larriak dira euskal gizartearentzat: bake prozesua blokeatua dago, beraz, normalizazio politikoa ere bai eta sufimendu humanoa dantzan, orain batez ere ezker

abertzaleko espaloian, preso, iheslari eta epaitu andana berrien larrutan pilatua. Euskal soberanismo osoa dago ur ustelduen putzu horretan. Nor atara daiteke mesedetua? Paktismo berria. Ibarretxeren erabaki eskubidea ezinezkoa bada, negoziia dezagun Urkulluren Kontzertu Politikoa. Ituna ez da txarra berez, baina gizarte esparru soberanista preso izanda, nola negoziatu eraginkortasunez eta indarrez? ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat



Lar Zaldiak

Bi lagunentzako saio bat

LARTZANDIETA Baserria,
Urdaia auzoa, 44
Usurbil GIPUZKOA

www.larzaldiak.com

1



Eureka! Zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.euskalmuseoa.es

2



Inguru Abentura

Espeleologia

4 lagunentzako
bina saio

San Juan 18,
Albeniz-Azparrena ARABA

www.inguruabentura.com

3



San Telmo museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

4



Erlea gure sendagile

liburua

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2428. Argia)

ATXASPI HOTELA

- Ima Eguen Balanzategi (Elorrio)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Jesus Lazkanoiturburu Arregi (Legazpi)
- Maria Jesus Zubikarai Erkiaga (Markina-Xemein)
- M. Jesus Barrenetxea Azkunaga (Galdakao)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Jone Santamaria Azpiri (Donostia)
- Jose Mari Ogando Rodriguez (Lekeitio)

ZARAMA Sinestezina - CDa

- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)
- Juan Carlos Bermejo Mateos (Laudio)
- Aitor Zuberogoitia Espilla (Durango)
- Josu Diaz De Otalora Serna (Usurbil)
- Iñaki Urutxurtu Fernandez (Antsoain)

ARGIA KAMISETA

- Koldo Elorz Leoz (Iruñea)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



argia eguna

IRAILAK 27 USURBIL

9:30 HERNANIKO FANFARREAREKIN DIANA

10:00 JAIAREN IREKIERA EKITALDIA

10:15 IBILALDI GIDATUA

JAKOBA ERREKONDO (PAISAIA), JOSU TELLABIDE (ETNOGRAFIA) ETA JON ANDER GALARRAGA (KONPOSTA)

10:15 JOLASEN TXOKOA

11:30 'NENDO DANGO' TAILER EKOLOGISTA

12:00 ARGIAZALEON TOPAKETA

14:00 GARAICO ETA EUSKAL HERRIKO
PRODUKTUEKIN HERRI BAZKARI UMORETSUA*

ASISKO URMENETA ETA KIKE AMONARRIZEKIN

16:30 NORTASUN AGIRI ESPAINIAR/FRANTZIAR JAURTIKETA
BOLA-JOKO ZIRIKATZAILEA

18:00 BERTSO SAIOA:
AMETS ARZALLUS, MIREN AMURIZA, JULIO SOTO,
UXUE ALBERDI, SUSTRAI COLINA ETA ROSI LAZKANO
SARRERA 5€ - BERTAN SALGAI

19:30 ANDRABANDA KALE EZTANDA

22:00 KONTZERTUAK:
BEHI BI BLUES
PERLAK
EÑAUT ELORRIETA
ESTHER SOUND SISTER

*HERRI BAZKARIA

HIRU TOMATE MOTAKO ENTSALADA
'BASATXERRI' PATEA EZPELETAKO PIPERREKIN
IBARRAKO PIPERRAK
ARGUEDASKO ARROZ EKOLOGIKOA BARAZKIEKIN
'LUMA GORRI' OILASKO GISATUA,
ARABAKO PATATA ETA GARAICO BARAZKIEKIN
IDIAZABAL GAZTA ETA BASERRIKO IZOZKIA
KAFEA
SAGARDOA TXOTXETIK ETA ARDO EKOLOGIKOA
AUKERA BEGETARIANOA ERE IZANGO DA

TXARTELAK 15€AN SALGAI
200 LAGUNENTZAKO LEKU MUGATUA
ARGIAKO EGOITZAN, LASARTE-ORIAN
ARGIARA DEITUTA: (0034) 943 371545
EMAIL BIDEZ: BZUZA@ARGIA.COM
USURBILGO BORDATXO TABERNAN
HERNANIKO OINDDI ETA TXILIN
IRUÑEKO KARRIKIRIN

BABESLEA



LAGUNTZAILEAK